

# Arketipoak Arkeologia eta



Félix Zubiaga

ARKETIPOAK ETA  
ARKEOLOGIA

FELIX ZUBIAGA

## AURKIBIDEA

SARRERA.....	9
I. ARKEOLOGIAREN IRAULTZA.....	11
1.2. Lurpeko egiaren susmotan.....	12
1.3. Arketipoak vs akertipoak.....	13
1.4. Europako Gudu Orokorrak.....	16
II ARKEOLOGIA eta ARKEMITOAK.....	18
2.1. Europa<Orube.....	18
2.2. Marija Gimbutas, Arkeologian dotorea.....	19
2.3 Kurgan metodoa.....	20
2.4 Euskera beste lekukoa.....	20
2.5. Marija teologa.....	22
2.5 Maite Sorkuntzako jainko izenak.....	23
2.6 Baztergo Teologia salatuz.....	24
III AMAREN SEME ONA ETA GAIZTOA.....	26
3.1. Egiptoko ausia: Or eta Set.....	26
3.2. Sumerreko ausia: Gilgames eta Enkidu.....	28
3.3. Babiloniako ausia: Marduk eta Tia.MaT.....	30
3.4, Babel Dorrea eta Yawé.....	33
IV IBERISTAK EUSKERARI ADI.....	34
4.1. Ama Eskolako Teologia.....	34
4.2. Ama+Aitarene eta Moisen aginduak.....	35
4.2.1. Ma.aT-en manamenduak .....	35
4.2.2. Mari-ren marrak.....	37
4.2.3. Moise-ren manamenduak.....	38
4.4. Iberistak euskerari adi.....	40
4.5. Iberiera eta euskera.....	41
V. KARTAGO eta JAINKO ARKETIPOEN DANTZA.....	46
5.1. Iraultzaren Tenploan.....	46
5.2. Kartagoren sarrada.....	47
5.3. Baloreen galpena.....	48
5.4 Aníbal-en gudu-jokua.....	50
VI KRISTO ALA ERROMA BAKEGILE?.....	50

© Felix Zubiaga Legarreta  
Diseinatzailea eta Maketatzaila: Felix Zubiaga Legarreta

ISBN: 978-84-09-30504-9  
Leg-gordailua: BI-00922-2021

Inprimatzailea: Printhus

Harremanetarako: fzubiaga@orue.biz

6.1. Kristonak jasaten.....	50
6.2. Irak gaur lekuko.....	51
6.3. Berbiztuaren bakea.....	52
6.4. Emperioko erleginoa.....	53
VII IRUIÑA VELEIA, EGUNOTAKO FROGA.....	54
7.1. Lehena eta oraina.....	54
7.2. Arkeologia eta euskera lekuko biak.....	55
7.3. Arkeologiari euskalduna.....	56
7.4. Ze berri dakarkigu Iruña Veleiak?.....	56
7.4.1. <i>Kristinau goiztarrak gara</i> .....	57
7.4.2. <i>Euskera bizia da</i> .....	58
7.5. Euskera eta Arkeologia.....	59
VIII ARKEMITOAK VS ANTIMITOAK.....	60
8.1. Aurkezpenez.....	60
8.2. Emaitzetatik ezagutzen zugatzea.....	60
8.3. Sorkuntzatik ezagutzen jainkoa.....	62
8.4. Indoeuropear jainkoen sorkuntza.....	63
8.3. Indoeuropear dogmak Gramatikan.....	64
8.4. Indoeuropear sorkuntzak.....	65
IX ARKETIPOAK GRAMATIKAN.....	66
9.1. Sikologoen oharrak.....	66
9.1. Irutasun arketipok Gramatikan.....	62
9.2. Erratuak zuzentzen.....	66
9.3. Nortzu garen (Amaren etxean).....	67
9.4. Erratuen memoria.....	68
9.5. Gramatikaren artezia.....	70
9.6. Zazpi arketipoak Gramatikan.....	71
9.7. Bestearen arketipoak.....	72
9.8. Lurra eskeko ala ?.....	73
9.9. Giza arketipoen zoria.....	74
9.10. Ba, giza arketipo baikor.....	74
9.11. uKa, giza arketipo ezkor.....	75
9.12. Arketipoen Zazpirak-bat.....	76
9.13. Ama Eskolaren omenez.....	77
ONDORENAK.....	80

**Siglen irakurketa:** (s) sumeriera, (k) koptoa, (eusk) euskera, (h) hebraiera, (g)

gerkera, (li) libikoa, (l) latina, (ga) gallegoa, (ca) catalana, (gaz.) gaztelania, (f) frantxesa, (i) ingelesa, (it) italiara, (al) alemaniera.

## SARRERA

Arketipoak aipatzean, Jung sikiatraren aholkua dugu gogotan: “ohargabea argitzeko, jo arketipoetara” dinoskunean. Izan ere, arketipoetan egon behar dute gure izantasunaren sustraiak eta nor-tasunaren oinarriak. Gure asaben, arbasoen jatorria *argi* astetik Nork jakin! Arkeologiak, hain zuzen; “asieran argia”. (Has. 1,3)

Beraz *arge* gerkerak “asiera” eta *argi* euskerak *argi astean* dinoo *Arkeologia* arloan, gaia eta azalpena bezala, lekuko bi direla. Horra jo behar dugu geure arketipoen bila. *Arketipoak* “antxinako ereduak” euskeraz; beste era batera esanda “antxinako gizakia”, “antxiñako euskalduna”. Ez amun-aitonen ezurrak, haien gizatasuna eta ideak baizik. Baiña nondik argituko, lurpera jo ezik? Amen erraiak egunero argitaratzen dituzten ume berrien sena-edo izan ezik. Ausaz ume auenak...”Eurak ixilazten badira, arriak hitz egingo bai-dute (Lk, 12,40), Igarleak esana bete dadin.

Arkeologoek, harriak mugitzen asi zireneko, hantxe aurkitu zuten erantzuna, harrian zizelatua eta arpean izkutatua. Zori-onean! Arrastoak galdu eta aurreko gure erduei nondik oratu ez dugunean, zoriak laguntza bereziak bidaltzen dizkigu. Horretariko laguntza izan da Arkeologiak azaldu dizkigun segetuak.

Haraz gero, gure ustekeriak aldatuz joan dira. Adibidez, oraintsura arte uste genduan gu Greziak eta Erromak argituriko seme-alabak ginala, eurak jantzi, elikatu eta dotoretuak eta horrelako gezurrekin ilundu dute, eta iluntzen jarraitzen dute Unibertzidade askok oraindino, gure burua, gure kulturaren benetako jatorria ohargabean uzten alegintzen direla.

Arkeologiaren laguntza barik, ostaz genezaken ohargabetik bururik atera. Betiko gaua pairatu beharko genduen, lurreko andiki armatuen aginterako, gure eredu zaharren aholkurik ezean.

Eskerrak ARGIA egin zuenak Arkeologiaren argibidea ideki di-

1 *Arge* gerkeraz, *Argi* euskeraz, hitzak “lehen egunean *Argia* egin zuan”

Liburukoa aipatzen du (Has, 1,3) Cf: *argitu/agertu* parekatu egiten dira. guna. Arlo honetan arkeologoek misiolari gertatu dira geure gizarteko ilunbeak argi fidagarriez salatzean, arkeologoek ere ilun seme-alaben aihergoa eta profetek ohi merezi gorrotoa jasan beharko duten-arren. Ez da arritzekoa halatan, arkeologo batzuk jasatzen duten arbuioa ikusi beharra edo Arkeologiak sortu dituen Museu eskolarik ederrena (Bagdag) halako amarruz, bonbaketaren suntzipena pairatzea geure egunotan.

Amak argitzean lez, arkeologoa amakide da, berak lurpetik jaio berri den antxinako senari hitza eman dio eta antxinako ama hizkuntzak, edo *piedra roseta* halako hiztegian ulertu al izan ditu haien mezuak. Horrela eman dizkigute Egiptoko edo Sumeriako Kulturen berri, Grezia eta Erromakoa baiño sei mila urte zaharra-goa. Eta arrigarria: Haien argiak besteon klasizismoaren ilunak salatzen ditu: “nortzu dira Greziako “zazpi jakintsuak”, Sumerreko *zazpi jakintsuen* ondoan?” Arkeologiari esker dakigu “klasikoak” ez zirela gure arketipoak, gure arbasoen iltzaile *akertipoak* baiño.

Askoren berbizkunde eguzkia, oinestuaren laino baltza gertatu zan arkeologoen iraultzaz. Fama txarra egin die: euren bitxitegia lapurtzeko giltzak ostu dituztela-eta Juzoa eskatu dute. Izan ere, gaitzak illunbean agintzen du, osasunak argitan. Ohargabeko geure arketipoak bilatzeko ikasbidea eman digu Arkeologiak. Ba dugu geure baitan ere naiko lur apartatu beharrik, ea noiz edo behin ohargabeko geure arketipoak argitzen diren eta ikusten ditugun.

Arkeologiaren berri edapenak une bi dauzka: bata ezusteko argitasunak, sekretuen gela iluna arakusten dutena: bitxi guztiak begien aurrean eta lapurreta seinaleak azpian tolestuta dagerz. Bestea lapur aberastuen erantzuna datorrenean: argiak amatau, txakur argiekin nastatuaz ezikusia egin, eztalako arazoa egiten saiatu, judizializatu, denboraren amaraunak uztiatu, guzurrez itxurgatu argimutilak eta denetan lapurretak gorde eta multsotu.

Arkeologiak ez digu bakea ekarri, baina bai gizarteko burruka zertan den eta noizkikoa den iragarri. Lezoune makala, bizi izan dugun ohargabea. Egunsentia deritso argi asteari, eta egun seme-alabak izatera gonbidatzen digu ezusteko argibide honek.

## I. ARKEOLOGIAREN IRAULTZA

Pikatxioia, paletatxo bat eta beste arma barik, erauskinen arteko lurpea arrotuz, antxinako herrien arrastoak agertu ziran garai joanen lezapean. Ariari tiraka, giza taxuak, idazkiak, arte zaharra eta kultura desagertuaren abotsak, harrian bertan zizelatuak, bustin tauletan pikatuak edo papiroetan irudikatuak. Bada eurak ziran, geure arketipoak, geuri deika eta geure belarri euskaldunduak pitinen bat ulertzeko eratan idatziak, hatan ere. Arrigarria!

Entzutetsua izan zan XX erdi inguruan: Asiriologia mailatik asi eta Eufrate ibaian bera, urari jarraiki, Sumeriologia alde batean eta Egiptologia bestean, “Nilo” *Abay/ibai/api* kultura zaharren aztarrenak eta geure abots idatziak, honagoko jakintza. Askoren jakin miña erne zan: “Ba gengoan, ba, *zikurat* deitu harrillu multzoak edo harriz eraikitako piramideak eta azal agertzen ziren erauskinak zerbait izkututzen zutela...” Historia isilduaziaren argi estanta izan zan.

Naiko sorgortu, baiña Historiak joaneko ateak zabaldu zituan, eta arkeologoek jaso berriekin orrialde berriak idatzi zituzten: Erroma, bi mila urte, Grezia, hiru mila urte, Babilonia, lau mila urte, Sumer, zortzi mila urtegiño... Irudi eta guztiko liburuak argitaratu ziran eta Unibertsidadea texto zaharren errakuntzak erakusten lotsatzen asi zan. Lotsatu bai, baina aldatu ez oraino...

Zergaitik da horren aztukor giza memoria, edo une bateraz gero, gizakiak joanaz aztu egin behar ote du, bide berri eta zori obeeri bide egiteko? Kontu horixe andikiaren ziria ete den. Kontu gende armatuak jo ta ke, dena ondatu duenean, bere triskantzari *bakea* deitzea. Zer da, izan ere, Erromako BAKEa? Bake horren erruz, herri xumeak apalgora, eta gizarteak arketipoen galpena jasan zuan *akertipoen* apatx artean. Geure baratzean sartu ziran adardunak eta guztia ondatuta utzi zutelarik, “orain bakean dagoz” keñu eginik, hil aginean utzi ginduzten. Jo, eta “mundu osoa halako BAKEtan zetzala”, jaio omen zan Kristo Jauna, dino Matirologioak. Bakegileok eurok kurutzeratu ez bazuten, ez gendun jaio zenik ere sinistuko, baina jaioa hil eta egortsi egin bai-zuten,

eurak izan zirelako seinalea dugu. Besterik da “ez uste ni bakera-ko etorri naizenik, gudurako baiño” esan zuena aitortzea eta haren berbizkundera sinestea. Izan ere, herriko egiaren aitortza-gaitik kurutzatua izan zenak gezur BAKEaren erreinua salatu zuan, iraultzen iraultzari bidea egiten ziolarik.

### 1-2 Lurpeko egiaren susmotan

Egia argitzen den tokian baitatu behar da, bestera begiratu barik. Zenbat gizalditan itxaron behar izan zuten Zikurat ondakinak edo Piramide harrituak, urre bilatzaileena ezik, beste kutizia barik.

Bibliaren irakurleak eta Historiari argi luzeekin begirutzen zio-tenek mugidu ziran azkenik, XX gizaldian. Siria eta Irak ziran induzketa leku señalatuena eta antxinako Babilonia edo Ninive urien aztarrenak ziran tiria gehiena zutenak. Lur bakoitzean aurkituak lur beratan gelditu behar zuten eta Sadan Huseinen garaian Antxinateko Oroigarrien Museurik ederrena antolatu zan.

Samuel Nohab Kramer arkeologoak “*La Historia comenzó en Sumer* idatzi zuan eta autore berriak *Historia de Asiria*, *Historia de Mesopotamia* titulo berriak idatzi zituzten. Kultura joanen distira ederrak agertzen ziran. Zer delata hain gorde iraun zeza-keten erauskin pean giza historiaren hainbat edertasun?

Sumerrek<sup>1</sup> itxasoarekin marra<sup>1</sup> egiten duen unean, Eridu uriko aztarrenak agertu ziran eta taula<sup>2</sup> kondo bertan kuneiformez idatziak *AMA.UTU. AN. KI* inoena. Begiratu zuten adituek eta “amak sortu zeru lur” ulertu zuten. Ze hizkuntzaz baliatu ziran gero, adi-tuok edupeko<sup>2</sup> taulatxuon idazkia ulertzeko?<sup>3</sup>

1 *Marra*>*mare*<sup>(1)</sup>>*mer*<sup>(f)</sup>>*mar*<sup>(gaz)</sup>. Sumer edo *Bit Yakin* “jakinen etxea”.

2 *Edupeko taula* zeritsen bustinez ornitu, edu bereko tauleri, Sumerreko *Eduba*<sup>(s)</sup> ikastolan, *edu*<sup>(eusk)</sup> “modelo”, *edupe*<sup>(eusk)</sup> “según modelo”.

3 Hanartean latina ez zan jaió, *ama+tu* euskal formekin bat dator sumeriera eta latinak beretzako egin zuan milaka geroago. Oraingo euskeraz “*amak itu zerua eta lurra*” esan genezake, -k ergatiboa geroago, kultura bereko urriten garaian agertu zelarik Eufrate buruan. Arrigarriena hizkerak urrean eta siniskeraz urrago gelditzen garela, klasikoen geroagoko dogmen gainetik, *AMA+AITA* sortzailea asierako fededunekin aitortzean.



Piramiden sailean atxurtu zerbaiten bila. Ezurren bat? Urrea, idazki mezurik? Gure arketipoek utzi ziguten jakinduria nork uler dezake? Euskerak bai al du haien hizkera ulertzeko beste adin? Orain bi mila urtekoak erraz ulertu zituan euskal arkeologoak Iruñia Veleian. Aditu eta ikus ea zer dinon papiroak.

Ez ebiltzen erratu ulertuek. Mezuetan beinena, izadiaren sortzaile AMA zela autematu zuten. Arteko sorkuntza mezutan ez zegon, izan ere, *AMA UTU* eskarmendua baiño. Halako ulerbideari Ama Eskola izena diagoko. Guretzat *aMa.uTu* konsonante biak *aMa+aiTa* ordezkatzan dute eta hizkuntza arketipoak diren bi hoién frututzat daukagu seme-alaba garenon nortasuna.

Arkeologiak, lurpetik jaso lehen izkribuan *AMA.UTU AN KI* aitortzen digu eta guk, euskereaz baliaturik, euren Sorkuntza Teologiarekin ezeze, Hizkuntzaz ere zubi egiten dugu. Arkeologiak ba du mezu onik eta euskerak arrazoia ematen dio Arkeologiari eta alderantziz.

### 1.3. Arketipoak vs akertipoak

Hitz bigurrituok hitzetik ortzera dinoe, zein garen bakoitza bere aburuko eta, aldiz, andikien *eretsia* zein *erexia*<sup>4</sup> datorken euren dogmara makurtzen ez direnentzat. Hizkuntza dugu beti ere, ez edo bai, elkar ulertzeko edo baztertzeko bidea.

Sumer osteko milagarrean, Egipto ere fede bereko dager eta *Ma.aT* izenaz aitortzen du arketipo berberekin eta bi mila kilometroko mortuak banantzen dituelarik ere, eritsi berdineko ziran,

4 Besteen *eritsiaren* aurka norbere *eretsiko* gelditzen dena dogmatikoentzat *heresi* dator gerkeraz, h- eta guzti.

Nilo *Abbay*<sup>5</sup> luzea da Egipton eta Faraioia Tebas uriburuan zelarrik, etorkin batzuk, icsoak, sartu ziran *Abbay*<sup>6</sup> agoan edo Deltan eta Piramideen zaindari Esfingearen begirune barik, lanean jardun zuten. Lur marduleko lanen frutuz asetu eta arte lan trebeen sale-rosketaz aberastu eta Temploa eraiki zuten Menfis urian. Ango *abateek*, Ma-aT-en eskolari jara egin gabe, dotrina berezia azaldu zuten, jainko *Bata>Patah -ren Sorkuntza* deitua<sup>6</sup>.

Abate haiek *BaTa>Ptah* deitu zioten jainko berriari, euren *baitatik* sortu eritsia zelako eta ez, Ma.aT bezela, beste inork dohaturua. Teologia horrek Ugaritu aldeko kulturaren parekide egiten ditu icso gente deituok. Ugaritiarrak ugaroaz bizi zirenok punikar edo feniziarren arbasoak, hotz, arketipoak, ziran eta *iLu* jainkoa goستن zuten eta haren seme *Balu alim* alena<sup>7</sup> ospatzen. Aldi aretako juduek ere arketipo bereko, *Eloym* jainkoa gurtzen zuten, gero Yawé, jainko bakarra, bilakatu zena. (Dt. 4,6)

Sumer eta Egiptoko kultura zaharren ostean, gaurko Libano buruko Ugarit nabaritu zan. Ugarituk kuneiformez idazten zuan hanartean, baina aldi batez gero, ez zuan jarraitzen Sumerreko teologia, ez Egiptokoa, judeguen eta arabeen arbasoena baizik, aMa.aiTa bikotea barik, BaTa, arra eta bakarra, aitortzen dutenen jainkoa alegia.

Halan dino Menfisko abaten dotrinak: “*Atum*-ek bere azi eta eskuaz sortu zuan, Ptah-ek, ostera, bigotzeko barruntoak abotsera atereaz sortzen du”, hotz, hitzaren magia du sortzaile. Bibliako jainkoaren antza du: “Egin bedi argia” esan zuan jainkoak eta argia egin zan” (Has, 1, 3) Baztergo teologiaren abateok *Atum*<sup>(k)</sup>>*aitona* bai, baño *Amum*<sup>(k)</sup>>*amona* ez dute aipatu ere egiten, Biologiaren egia murriztuz, errezago izango dutelakoan. Hala ere, ixiltzen duten aldeak egiztatzen du beti ere erdizkako egia den aula.

5 *Abbay* deitzen die *ibaiari* etiopiar *güez* hizkerak eta lehengusu berriak azaltzen zaizkio euskerari. Frantziar arkeologoek gauzaren ezjakinian, *Nilo* deitu zioten uren *anil* koloreagaitik. Erromanikoez maiz azalakerian gelditzen dira, euren artean bizi den euskera ez onartzeagaitik.

6 *La Teología menfita de la Creación*, ANET, 4-5

7 *iLu>aL+in* geiengoan, *alyn>alena* dator eta euskerak mespresuko esakeretan erabilten du, “tonto *alena*”, adibidez.



**eRraren Temploko zaindariei AKER zeritsen. Adari, leoin, katomtx eta esfinge tipoak ziran, AKERTipoa bertatik bertara tipo hori ezagutzeko balia diezakigu.**

Tebasko Faraoi Amosis III jaiki eta “nahiko da” esan zuan eta indarrez astandu zituan Deltatik ate icso burunaikoak. Ezpaere, dudamudetan Arkeologiari galde. Joan dira pikotxa eta paletadunak *Abbay* Ago aldean indusketak egitera eta icsoen arrastorik bai idoro dute, baiña Moise maisuaren eta bere juduenik ez. Eta



arriak zer diño? Menfisko Abaten egundoko lapurreta izan zala. (ikus or 15) Abatea, leoin narruz jantzita, Ma.aT-en matematikazko balantzaren zehaztasun seinu *buruko>fulkroa* dena Ptah-ri eskeintzen. Artean eskuetan du dagoneko aginte *was>bastoia*, eta idunean Ma.aT sorkuntzaren *armonia* adierazten duen idunekoa. Eta umeez zer dinoe? Umeez jaio zirenetik: “ama, ama, ama”. Jaio ez direnak bakarrik dagoz mutu, hotz, jainko berriak, *amatu* beharrean, *amakatu >magia* utsa egin dutelako.

*Amatu*, ama+aita bikotean bakarrik amatzen delako eta *amakutzen* duen bakartia, *magian* gelditzen da.

*Ptah*, Ma.aT ama+aira-ri kenduneko sinboloez boteretu zeneko erritoan.



#### 1.4. Europako Gudu Orokorrak

Ondo datorkigu egunotan *Europako goitzainen Agerpena* Europak, *akertipoen* sarradaz, saminiñak jaso zitueneko hirurogei ta amabostgarren urtegarrena<sup>8</sup>, halako okerrrik errepika ez dadin.

Europa goiztar kristautuan igarle berriak azaldu ziran XIX gi-zaldian eta Indoeuropeísmo aldarrikatu zuten, Kristo aurreko Grezia eta Erroma, *indio haiek*, gorapatuz eta ezelako indigenismorik aipatu gabe. Italiako XVI-go eRnazimendu halakoaren pusminez gartu nai izan zuten Europa Erdia, Giovanni Semeranok salatu zuenez.

Gerotxoago otz egin zuten sen bereko maisuek: "Gramatika horren setak ez digu jainko ideatik jai egiten usten" inoan Nietzschek eta handik laster "jainkoa hil dugu!" asaldua jotzen zuan. Jainkoa hilez gero, gizakiak zer egin zezaken, galdetzen zan haraz gero. "Elkar hil? Hori ez!"<sup>9</sup> Zerez bizi? Ondasun Kapitalaren iturria azaldu zuan Marxek aldi haretan eta egunotako gener opio berria antzo, sexu indarra pustu Freud sikiatruk.


Jung, aldi batez Freuden ikaslea izan zan. Hala ere, modaren ugoldeaz garaiz konturaturik, korrontearen aurka ekin zion arketipoen alde burua atereaz. Hona, beraz, arketipoak *akertipoen* aurkako burruka paregabean, ideologiazko armak eta bermak prestatzen

Artean lehen Guda Orokorra XX 14-an. Elkar hiltzeko arma barriak prestatu ziran, mostaza gaza, egazkinak, bombak. Arma berrien entsegua izan zan. Jainkoa hilez gero, zer besterik egin zezaketen jainko seme-alabek? Gernika erre zutenek ere horixe esan zuten: "arma berrien kaltea" nehurtzeko saioa izan zela 1937-koa eta geuk jasan gendun eraso<sup>10</sup>: Agur gure kalea, gure osakaien denda.

8 "Europako goitzainen agerpena: Auschwitz-Birkenau-n gertatu zeneko shoa-k 75 urteurrena bete dueneko honetan gaurko mundu guztiari adizkidetze eta baketze deia egin nahi diogu, aberri-nazino bakoitzak izan eta askatasunean bizi izateko eta bere kultura mantentzeko daukan eskubidea onartua izan dadin".

9 Ez dok amairu kantariak ondo kudeatu zuten gure arteko mugida berantiar hau eta herriaren bihotz urten zuten, hotz, Amaren Eskolako.

10 Bost urte bakarik nituen orduan eta egazkin gaiztoen motor zarata entzun nuen igaroan eta bomba estandak laster. Mina zaharrean izkututzen giñan egunez. Ama besoetako umea altzoan, aulkian jesarrita. Gauez etxeranean, Gernikako sutearen gorrimiña ikusten zan danean. Ama bularreko flebitis batek eroan euskun laster.



Asieran Egiptotik igesian eta XX-an Alemaniak Auschwitz-era bidean.

Zer inoen medioak? Gorriak izan zirela eskapadan. Arriek zer? Oraindino ba dago Gernikan erreketeta hartean goritu zen harririk ikusi gura duenarentzat. Eta umeek? Umeek, betikoa: "ama, ama, ama". Gernikako entzegua gero Alemaniak berak jasan zuan bere urietako seme-alabengan, aipatu gotzainek salatzen duten *sua > shoa* haren urte berean eta Juduek izan ziran, hatan ere, parterik saminena jasan zutenek, gazeko labeetan erreta milaka garbitu bai-zituzten.

*Akertipo* halakoen sartadaz giza arketipoak berea jasan dute gure egunotan: guraso ama-aitak, haien seme-alabak, gure aide, gure herriak.

Zer dute Erromatik honako faxistek Euskal Herriaren aurka? Euskeraren susmoak behin betiko ixildu gura horrek balorez gotortzen du euskera eta euskaldungoa. Euskeraren egia aurrera atera bear dugu.

Europako gudateetan larri eta hitz bigurritu nabaritu ziren *akertipo*-ak arketipoen aurka. Euskaldun izateagaitik jasan dugu. Martirien exenpluak bultzatzen gaitu gu ere, Kristoren goraintziak kristinau irautean lez.



Akertipoen bultzadaz Gernike erre zenekoa

Gure aita arotza zan neguan. Ol andiak lantzen zituan etxeko atartean. Tabloiak elkarren gainean jaustean, egiten duten danbatekoa zan Gernikako bonben eztanda niretzat. Gaua, iluna edo izarratua barik, labe gorria...

## II ARKEOLOGIA eta ARKEMITOAK

Arkemitologia bidez geure arketipoen mintzoa aurkitzen dugu. Mito zaharrak *arkemito* deitu zituan Marija Gimbutas arkeologak. *Arkemitoak* aitatzea bakarrik *mito berriak* salatzea da, beste barik, bada arkemitoak ezaltzeko, mito berriak sortu zituzten *akertipoek*, eta mito zaharren irudiak lurperatu egin zituzten.

*Mitoea mintzo* dadin, ez du izan entzute onik gure artean mitoak. “Hau da Historia, horrek mitoak dira” ganorako aldarrikak entzun eta ikusi ditugu egunotan geure medioetan. Zer gertatzen zaien Estatuko indarrei? Historia eurek moldaturiko egia erdiak direla eta mito zaharrak, berriz, egia osatzen datozenak. Egia erdiko gezurrak sarkorrek dira, kultura erdiko herrian.

Marija lituaniar abertzaleak Europako azken gudutik iges, Arkeologia tituloaz baliatu zan, burrukak utzitako kerrua garbitzen.

### 2. 1. Europa<Orube

Europa erdia edurpe zegoen, Vurmiense aldira arte. (ikus 19 or.). Europa Ifarra, *Landsend* unetik gora, lurmendu zeneko, agertu ziren *landa*<sup>1</sup> berrien bila mogidu zan beste erdia. Ordukoak bide dira *Europaren arrapaketa* grekar mitoa ere. Haraz gero agertzen dira *Holand*, *Deuchland*, *Finland*, etab, izenak. Nolabait, *Sheland*, edo *Zelanda*<sup>2</sup>, bezela, etxekoen *landak* ziran, etxetik ate antolatu zuten *lana>landa*.

Andia izan behar zuan orduan euskaldunen kopurua, bada, *Poland* ezeze, *Varsobia* eta *Grakobia* izenak ere euskera dira. Marije Gimbutas maesak hizkuntzen argi bidea ere aintzat izan zuan, baina lekutan gu.

*Europa<orube* berria zan *Or/Orzi*-k bere errainu pean hartu eta belarrez jantzi zuelako. Grekoek Zeus jainkoa, zezen itxuratu, bialdu zuten *Europa* neskato naroa etxeratzeko asmotan. Baina Europa *Ator*<sup>3</sup> ama *>adorearen* eskolako alaba zan eta lapurrari kalabasak eman zizkion.

1 Ullibarri Ganboatik *Landara* doan kalea *Zelanda* deitzen da. Horrek esan gura du aldi baten ganboarrek *Landa* auzoari *Etze(ko) Landa* deitzen ziela.

2 *Ator>adore* Egiptoko mito zaharra eRra aitaren ohorea minki aldestu zuelako, (*Rescate de la Humanidad de la Destrucción*, ANET, 10-11)



Europa Zaharra Sortaldetik Sartaldera, Kaukaso-Ainamendi eta itxasbideak batetik bestera. Kuadroetan: baltzean Marijak egin induzketen unea, zurian, euskararena. Ama Eskolako hizkuntzak elkarri atxikiago bizi ziran klasizismoaren aurretik.

### 2. 2. Marija, Arkeologian dotorea

Herri txikiak ardura andi, Marijak abertzaleen sendi ikasieneko etxean, herri bakoitzak bere lurrarekin bizi duen armonia bizi izan zuan. Ama oftalmologa lituandarrak eta aita medioetan aritu erusiarrak herriaren serbitzurako ospitalea jaso zuten Vilnian.

Alemanen sarradan Alemaniara joan eta Tübingako Unibersidadean Arkeologian doktoradutza egin zuan. Bere tesian lituandar herriarren etnografia aztertu zuan. Gudua goritzen zelarik, abertzale lituandarren seguridaderako, Marijak Amerikara jo zuan. Harbard-en lehenbizi dohaneko lana egin zuan, Kalifornian gero lan gogotsua egin ahal izan zuan, beti ere Unibersidadeko teoria praktikara eraman irrikaz.

Gudua amaitu eta bereala, gudari klasikoek sastagira jaurti eta baztertu zuten Ama, lehen arketipoa, milaka irudi txiki bilusitan, itoititu zituan sastegi eta idoietatik argitara. Geure egunetan egingo dako ekintza da, baiña Erdi Haroan gertatu zenaren antza du<sup>3</sup>.

3 Erdi Haroan Isis Ama-Umeen agerkundea gertatu zan, XI-an Andre Mariaganako jaiara biztu zenean eta Idoiako, Idoibalzagako, Antxinako, Aparecida, Bienaparecida, Moreneta, etab. tiluloekin agertu ziran. Nork berezi ze santuren irudiziren?

### 2.3 Kurgan metodoa

Arkeologia eta Arkemitoa bateratzean, Europako hizkuntza zaharri lehentasuna ematen zion. *Kurgan*<sup>3</sup> *metodoa* deitu zion bide honi, egia osoaren gorputza eta arima bezala baloratzen bai-zituan.

Arkeologoen artean bide barritzak emon zan Marijaren asmoa, Arkeologia eta Mitologia Linguistikarekin bateratzea Neolitosko Europa eta Brontze Aroa argitzeko. Aurre-Historia idazteko auzardi honek arkeologoen artean maisutza opa zion. Maisu askok ezer ikusten ez zuten tokian sogileak sogeri zekusan eta Marijak arrakasta izan zuan lurpeko egiaren indusketa haretan. (Ikus p. 21)

Ibai bideei jarraiki, toki bazterreko putzuetan aurkitu zituan Ama Jainkosaren irudiak. Mila halako itoititu zituan Marijak

### 2.4 Euskera beste lekukoa

Euskerari dei egiten zion: “Euskera da Europa Zaharreko Ama hizkuntza jatorrena, bera da gainerako argibidea” Izan ere, euskera kategoria berria jasotzen du Marijaren goralmen honetan<sup>4</sup>.

Orduan ezeze, orain ba dago, Euskera entzutean, sorgor nora begitu ezean gelditzen denik. VOX eta kideen ostean, nork esango Trump bera<sup>5</sup>, ¿Nork berotu ditu dirudun honen belarriak? Diru hartzaile batek zigur. Dolar berbera delako ingeles hizkuntza murriztua bultzatzen eta oroimendun euskera zigortzen duena.

3 *Kurgan* izena errusiartzat zeukan autoreak, baina ez dago euskararen ulerbidetik ate, *Ekur+gane*, *Bizkaigane*, *Autzagane*, *Maidagan*, etab. egiturakoa bai-da. Ukraina aldean andikien tumuloei *kurganak*, lur pilatuaren *gainean* erakitzen ziren hilobieri, bada EKUR “santutegi” bihurtzen bai-zituzten.

4 “El euskera es una reliquia de la antigua lengua de Europa Occidental, no sólo prerománica, sino preindoeuropea, es una lengua autóctona que ha podido superar las invasiones e influjos culturales de los últimos 3.000 años. Los vascos han demostrado una gran capacidad para integrar estos influjos, sin perder su personalidad. (Contribuyen de hecho a la gran excepción de la historia cultural de Europa)” (GUILLERMO PIQUERO, *Mitología salvaje, reconstruyendo la cosmovisión indígena europea*. ANEXO II, p. 257) [Kalifornian jasoko zuan ausaz euskeraren berri]

5 “Como siempre que el facherío se desata, el euskera es atacado. Nada que no hayamos oído miles de veces antes: que es un idioma inventado por Sabino>



Marija Gimbutas andreak Europari opa dion irribarrea

Euskarari egunok arrera onik egin ez dion gen-deagandik ezin zezaken Marijak ere txalo oberrik itxaron. Hala ere, maitagarriagoa da azkenaren irribarrea, batez ere, aurrera bultzatua beharrez, amarruz atzendua izan denean.



Arkeologiaren egia ikus daiteke irudi txikiotan

Orain argiago dakigu piramidedun dolarra noren alde dagoen eta susmotan dugu zergaitik dagoen faxisten alde eta orduan eta bikainagoa deritsogu euskeraren jardunari. Orain ulertzen dugu Piramide berriaren AKER Esfinje buru direnen Trump, Netaniaku, Saudiak Kapitalaren izenean batzen direnean, urrengo bitima zein izango den.

Artean obeto ulertzen dugu Marije Gimbutas andreak euskerari egiten dion goralpena: bere ideko idea bermatzen datorren oinarria duelako eta hala firmatzen du bere liburuetako bat *El lenguaje de la Diosa*, euskera-edo bailitzan. “Ama Jainkoaren hizkuntza” (ikus or. 22) euskera bera izan ziteken, euskera arkeologia lana bermatzen datorrelako, Arkeologiako materialak bakarrik ezin duelako egia osoa azaldu, materialak behar duen forma edo arima, hizkuntzak bakarrik eman diezakiolako. Beraz, euskerak eta Arkeologiak Europa arrapatu duen klasikoaren kultura ezeze, erleginoaren zenbait dogmek ere oka egingo lukete eta *erexetat* zigortuak salatuko dogmatikoen *eretsia*.

> Arana que nadie lo habla y que no sirve para nada y menos para nada actual. Pues bien, Samuel I. Jackson ha demostrado que es útil para mandar “popatik hartzera” a Donald Trump y a sus seguidores...” (Iker Merodio, *Deia*, 17 sep. 2020)

### 2.5. Marija teologa

Marija ez zan teologa, baina eskuartearen erabilan Antropologia edo Biologia lanak Teologian burutzera zeraman, Logika eta Ekologiaren kaleari jarraiki. Arteko dogmak dira aster-tu eta arteztu beharreko erratuak, Espirituren lana magia bihurtzen dutelako.



AMA INKOAREN HIZKUNTZA izan ziteken

Hesiodok barrezka ospa zezaken Atenearen jaiotza, gudari buru oskol ta guzti, aita Zeus jainkoa buru zartatu edo arrakaltutik alaba erditzean dakusanean. Burukominak izan omen zituan. (Ikus or. 63) Ama baztertu tirriak, berdin osa zezaken ama gabeko Familia: Aita, Semea eta Espiritu Santua Irutasun dogman. Baztergo Teologiak non-baitetik sortu behar du gizakia edo jainkoa, ama amatuz ezpada, amakatzu magia egiten duen jainkoagandik.

Hortxe dago kleroaren erratua ere: Eleiza Amaren arazoa emakume barik antola zezakela uste izatean, ixipuz, olioaz eta ke lurrinduaz. Jesus txuaz baliatu zan itxuaren begiak osatzeko, eta osatu egin zizkion.

Jesus Maisuaren jarduera obeki buztartzen da Maite Teologiarekin. Iruzur andia gertatu zan edo egundoko lapurreta Baztergo Teologiak Ma.aT bikoteari botere seinuak arrapatu zizkionean, (Ikus or. 15)

Marija Gimbutas andrearen eretsia barik, lapurreta egin zuten arketipoak dira benetako erexe eta lapurtzakoek kaletik lasai doazenak.

Orain lekuko bi dira jatorrizko Europa Ama Eskolakoa zela esateko edo egia honen argigarri: euskera eta Marija Gimbutas arkeologaren lana. Marijak bildutako ama iruditxoak eta euskerak ulertzen dituen tokizenak elkarrenak dira. Erromaterren ostean, Erromatar-Germaniar Enperioko kristau doktrinak ostaz baketu al izan zituan eskualde eta erregeen arteko eztabaidak. Hagaitik Marijak Europaren bakerako, asierako Ama Agintea eskatzen zuan, bake aginte haren frogak azalduz.

Arkeologia lan honetan egia osatzen da: guda gizon ankerrok astetik emakumeaganako duten bortizkeria.

### 2.5 Maite Sorkuntzako jainko izenak

Mitoa non, euskera han gertatzen da eta euskerak mitoa ulertzen duen heinean, mitoak euskera bermatzen du.

Gizakia munduan delarik, “nor naiz, norena naiz” itaunak egiten asten da eta Amaren Eskolako denak AMA.UTU AN KI dino Eriduko taula zatiak lez. Sorkuntzaren Teologia egiten duena txikitik andira doa, etxetik izadira, bere eskarmenduaren arabera: amak erdituz, umea ekarri du, “aMa.uTu>itu du zeru-lur” esango, edo aNTu<sup>(s)</sup>, euskeraz No+To<sup>(eusk)</sup> bikoteak, lehen bi arketipoak izentatzen dituen eran<sup>7</sup>. Etorriko ziran, No baztertuz, “qué hay tío>kaixio” formaz emakumea ere agurtzeko era moldekaitzak.

Egiptoko sorkuntzan NuT>iNuDe dator, bere bizkarreko “ur goienetan” erRa, arketipoetan eRena, ontzian doala aMa eta aiTa maireen zaintzapean, aMa aurretik aholkuz gidatzen, aiTa ostetik idatziz egiztatzen, eRensugaren amarruetatik auRra jaregiten.



Bean GEB “lur”, gabe dago etzana. Erdian SHU “aire” arnasa eta ank “ainguraz” Amari lotu bailegon. NuT izarratu dager, gaueko jantzitan erRaipen egazti ta arrainek erRun arRautsa: beste sorbidea. Ontzia Osiris aitaren zerura doa.

Euskerak amatar sorkuntzako izenak gorde al izan ditu, Sumerren eta Egipton bezala, hiru lehen arkektipoak Gramatikako pertsonak

7 Arrigarria ere bada kultura zaharrena eta euskeraren arketipoak honetan adostu etortea, hotz, aN “zerua” eta uTu “iduzkia”, aMa eta eta aiTa sinboloak, sorkuntza berean egotea.

izendatzen dituela. Memoria egiteko iruron izenez berezi ditu mendi altuenak: AINA mendi, OTAmendi, ERRAmendi eta urteko jaiak ospatu INOtean, JOtean eta ORONzaroz.

ERRaren aurrarekiko kidetasuna dager gizakiongan, “bada gizakia bere irudi da, bere aragitik urtena”<sup>8</sup>, *aRaKi>aragi* beraz eta AR- aurrizkia sortu zeneko memoria: *aR+NaSe, Erra+un>errun* da, *Erensuge>Ersuge* deitzen zaio haren etsai andiari. *ANU>ano* dator, *AR+ano>aRNo* “erraren edaki berezia”<sup>11</sup>, etab,

*NuT* amak *inutzen* duen *GeB* gizakiaren *Giarra* eta *Baita* da bere *gabezia* esku bata Osiris-en zorion agintzari luzatua daukana. Grekoek, ostera, *Geb>Gaia* lurtar jainkosa egiten dute

Eskola Klasikoak eta XIX-ko filosofo susmokariak arketipo goitarrei ezikusia eginik, edo ukatuz, *GeB>GaIa*<sup>(6)</sup> lurretik jaso eta gizaki indartsu jainkotua altxatu nai izan zuten, Nietzschek *Ciencia Gaia* idatzi zuan<sup>10</sup> mutil *gabetua* asaldatu zedin.

## 2.6 Baztergo Teologia salatuz

*Menfisko Sorkuntza*, kontrakulturako *Teologian* lehen asaldua, *aMun+aiTunen* sorkuntzaren aurka urten zuan eta *Bata, fariseu<berezia* eta alargundua, *Ptah* aurkeztu zuten *Menfisko abateek*, bera *ta tenen*<sup>(k)</sup> “*denen aita*<sup>(eusk)</sup>” izendatzen zutela.

*Arrazoi* “Erra araberako aburua” da, baiña bere erreinuaren

8 Mendia zein jainko izeneko santutegi den zigurtatzen du euskerak, erro-manikar klasizismoak, ostera, Teologia ahozpe jarri nairik, esku denari nortasuna ukatu egiten dio, *Ainamendi>Montanya* bihurtuz, edo *Otamendi>Montoto*, eta *Erremendi>Monterre*, etab. eginik, jabea mirabe egiten duela, muiña, itxura.

9 “Bien dotados están los hombres que son el rebaño *artalde* del dios. El hizo el cielo *zeru* y la tierra *lur* en favor de ellos *euren* y rechazó al monstruo de las aguas *erensuge*. Hizo el aire que es vida para sus narices *sudur*; pues son imágenes *irudi* suyas, ya que han salido *urten* de su carne *aragi* (*Intrucción para el rey Merikaré*, 134-138, o.c.)

10 Nietzschek *Ciencia Gaia* idatzi zuan, *lur* dena Galaxia guztietatik jareginik, beregan, jainko azikiña bailekusan, edo berez jainkotu ziteken supergizona.

11 Erraren alaba, *Ator adoretuak* aitaren aurkalariek garbitzeko ordena hartu zuan. Errak, damuz, *Ator* alaba mozkortu behar izan zuan “Hortik, beraz Arno>ardano. (*Rescate de la Humanidad de la Destrucción*, ANET, 19-11

aurkako *arramantza* denean, minki zigortua izango zan.

Marija Gimbutas arkeologoak ama jainkosen irudiak lurpetik jasoaz, Baztergo Teologia salatzen du, hotz, Lituania bezelako herri txikiak zapaltzea den bidegabekeria eta eraiketa gordiña den gudua itxurgatzen eta bakezko gizarte aldarrrikatzen.

Sumer ere mortuko akadioen sarradan, txiki sentitu zan eta Uruk *uriko guenak>urukinak* Gilgames galai zorozkilaren eskuetan utzi behar izan zuan agintea. *Gilgames* liburuak galai ameslariaren ekintzak ezezten ditu. Mitografiak ere eroi beraren jatorria eta ganora astertzen dute, *Pazuzu* deitzen diotelarik. Nor da goiak eta beak arrapatu nai dituen



Gilgamesek bide luzean hilezkortasun belarra lortu zuan. Etxera bidean nekaturik, atsedean hartzen zegoa, subeak ostu zion.

*patutu* hau? Zigur *Adu* baitatu duen *>Patu>Patutu Bat* bera da. Bere sortea emakumeagandik aldendu eta parekide zirenetatik *Bat* bakar alargun gelditu zena, haren gizatasuna galkor, lurretik narras doan, subearen antzekoa.

Subea ei zan “abereetan azkarrena” dino (Has, 3.1ss) Ausaz idaslaria bera zan azkarrago, bada, emakumea barregarri uztearren, subeari gezur berbak esaten erakutsi bai-zion.

Baradisuko pasadizo horretan ba dago, hala ere, oraindino zearo bete ez den subearen kontra-ko igarkisun bat: “Aserrea jarriko diat emakumearen eta hire artisan, hire ondarearen eta haren ondarearen artean, berak zapalduko dik burua, hik hari orpotik heldu aginean” (Has, 3.15-18)



*Patutu>Patoso, Pazuzu>Patabau>Pachucho:<Bata>Ptah* datorrenez.

## III AMAREN SEME ONA ETA GAIZTOA

**Sarrera**

Baztergo Teologiaren kalteak familia bera ikutzeraino ezeze, gizartea astintzeraino joan ziran eta, ama saminduaz gain, herria astorutzen denean, gogoangarrirako eskarmendua behar du. Mittoak herriaren zentzabiderako mintzorik baldin badu, ezin zeiteken ixildu anai onaren eta anai sahiestuaren mitoa.

Hikso etorkin jendeak, egitiarren Ama Eskola gutxietsiz, Baal legezko, *Bata*>*Ptah* altxatu zuten jainkotzat eta Nilo Aboko eskumaldean, Menfis urian, burunaiko egin ziran bi mila urte K.a., Amose I Faraoiak XVIII herritik kanpora ahienatu zituaino.

**3.1. Egiptoko auzia: Or eta Set**

Egipton *Ator*<sup>1</sup> maite jainkosaren *adorea* frogatu zuan Erra aitaren eta Set seme sahiestuaren arteko burrukan. Ator “Or atea/etxea” esan nahi du. *Or*>*aur* dator euskeraz eta amaren kutunak egunero *ortzira* osterea eginda, amarenean otsitzen da. Ezaguna gendun *Urtzi* izena XII gizaldian<sup>2</sup>, ez klasikoen *Horus* deformatutik hartua noski, naiz H-k, arketipoa ez denez, ez dion gehitzen {naasmena izan ezik} ez kentzen ezer forma jatorrari.

*Or aurra* goizoro *urt* egiten du, beraz, *ortzira* eta *Ator* amak *atoratu* egiten du berean *arrastioro*. *Or* semearena *urt* egite, *urtena* da. Baina *Set*, seme sahiestuak, anaiaren bekaitzez *set egiten* du, bekaitzarren, behin *Or* anaiari begia atereaz<sup>3</sup> (eskerrak Tot aitoren arteziak konpondu ziona) eta beste behin *Osiris* aita Nilo

1 Grekoek Hator idazten dute H- klasikoen jatoritasun seinutzat, baina euskerak ezin dezake eredu ustelik jarraitu, bestela “seme haitorra eta alaba hadoretsua” idaztera lerrarasiko ginduzke. Beraz koptoeraz bezala, *Ator*, maite jainkosa, H- gabe

2 “et Deum vocant Urcia” (Codex Calistinus), Italian “Val d. Orchi”, Frantzia *Orcival*” formak ere ezagunak dira edo gurean *Saint Urzi*>*Santurtzi*, mendietan *Montorzo* Italian. *Orzomendi* Nafarroan. Tokizenok jainko honi erantziak dira.

3 MALAISE M. “HORUS”, DR O.C. P. 769-769)



*Or* eta *Set*. *Ator*ren seme biak *Azor* eta *Sator* burudun, Egipto biez, Goikoaz eta Bekoaz, *Bat* egin aleginetan. Menfisko *abatan* asmoren alde *Egipto*<*oiku batu* sor dadin *Bata*>*Ptah* asmatu jainko izenean. *Or*>*ora*, *urso* ere badator, *Set*, *seta*. *set* egina, *sator* azpijana eta *Satan* duina

Abbay ibaian itoazi zuan eta haren gorpua zatitu, *Ator* amari min egitearren. *Isis*, *Ator*ren ondorengoak haren gorpuzkinak konpondu eta berbiztu egin zuan<sup>3</sup>. Zer den *seta* gaiztoa! *Or* urtena atera zan garaile eta *Set*-ek “*set* egin zuan”. Hagaitik *Set* deabrutara emana izan zan, *Set-ena* gehiengoan, *Satan* adina datorrela.

*Or/ur* formaz landa, ugari dira kutun honen analogiara, aberedian bedere: *ora*, *artzanora*, *txakur*, *txekor*, *urso*, *urde*, *ordotx*, *beor*, *perro*. Landaredian; *erro*, *orri*, *berro*, *porru*>*puerro*, etab. “Jainko izenak hitzen sortzaile dira” “*momina* sunt numina” zinoan Max Müller, erliginoren gonbaratzaileak eta egia bidean hizkuntza beste lekukoen gainetik jartzen zuan.

*Ator*, maite eta pozjariozko jainkosak, Ama Eskola egiten jarraitzen du, bere *adorea* *Set* seme sahiestuaren pigura Menfisko abateen erexiaz nastatzea *Ator*-en ondoko mitografiak ematen du: (ikus or. 27) bi anaiak Egipto Goiko eta Bekoaz bat egin gurako sokatiran, *Bat*>*Ptah* izenean eta Nilo Aboko gorgan, hatan ere<sup>4</sup> Ezkerrak *Ator*ren adoreari ez zan halakorik gertatu eta Baztergo Teologiatik at, asierako Ama Eskolak darrai koptoengan.

3 *Ator* jarraiko *Isis* jainkosak berbistu zuan *Osiris* bere soin atalak ibaitik jasoaz. Beraz giza psikologia B+K arketipora finkatzen zutenek geroko bizitza itxaroten zuten, *Ba*>*baita* jabea beste norbait delako, ez norbera, *Set* lez, gaiztotu ezik.

4 Ohar eta aztertu (ikus or. 15) *Ptah* boteretu berriaren *Was* >*bastoiaren* buruak antzik ote duen.



Ohar nortasunen janzkera: Sumer zazpi jostunen eratakoea, Akkadiar-semitar. Enlil, arku eta geziz armatua, leoia ondoan, lehenago Inanna, ego loratuarena, zena, erdian *Utu iduzkia* menditik *itoitzen*. *itaiaz* bidea egiten duela. Inannak frutakiez gozazten du, aldamenetik *idia* etzana eta *usua* egan korua egiten diote. Enkierreka bi dariozala. Eufrates eta Tigris. An/Anu “zeru” Aitak lurrera, urak antolatzeraz bidalia. Basoa eta murrua dago Enlil sakerre eta Inana kikilduaren artea. auzipean arazoa.

### 3.2. Sumerreko auzia: Gilgames eta Enkidu

Akkadiarrak Amorrutik jiran eta Enlil<sup>5</sup> semitar jainko armatua (ikus or. 28) zuten babesle, bere eroi Gilgames Sumerren sartu eta Uruk uriburuko ziguratua jabetu zenean, hango Ama Eskola kultura kinkan jartzen zuelarik.

Sumerrek bigarren jabetza eskuratu zuan eta Asiriako mugan Mari uria jaso zuan Tir itxas marrari begira. Orduko sorkuntza daite *Gilgames* eroiaren historia. Gilgames galai ameslariak atanbore otsean gudura deitzen zuan gaztedia eta andre eskondu edo ezkongeirik ez zuan bakean uzten. Herriak gogait egin zuan, jainkoek batzartu eta kontuak eskatzeraino. “Aruru, -dei egin zion Anuk Gilgamesen amari: “heuk sortu hendun Gilgames. Orain bere adineko beste bat sortu behar dun, elkarrekin burrukan aspertu daitezzen eta Uruk uria baketan itzi”.

Aruruk Mortuan sortu zuan Enkidu eta abere taldean belarra jan eta erreka uretik edaten zuan. Basati halakoa berreskuratzeko emakumearen artezia behar zan. Enkiduk manada utzi eta neskeari jarraitu zion

5 Enki> An+ki “zeru jainkoa lurrean”, baina akkadiarreak En+lil akkadiarra arkuaz eta gezia armatua eta kanaandar-semitar jantzian dago.

6 *Gilgames* I, II, 30-24

Neskak Gilgamesgana zuzendu zuan. Enkiduk, ikusi orduko, oratu zion Gilgamesi, zeinek aurkaria azpiratu.

Atzean izan zuten burrukaldia eta haraz gero, baten orde, ganadu bi ziran zein gaiztoago burrukan.

Hala ere, Enkiduk Shamash “uTu” Iduzki jainkoaren oharrak kontuan hartzen zituan eta gaizki eginen damu izaten zan, Gilgames ez bezala.

Arkeologiari eta haren zale S. N. Kramer bezelako autoreen fedeari sor diegu zientzia honen zabalkundea. Mitoa non euskeraren antena han, ingeles exegetenak baino adikorrago delako izenen otsa ulertzen

Sumerren *Uruk uriko zikuratua* “itze goratua” menpean hartzen du Gilgames *heroi eroak* [ingeles exegetak ezer nabariteko, ez dauka euskeraren adikunerik] *Gilgames galai ameslariak* ezetzi maite jainkosen izenak: *Izara/Izar* “Istar” [ingeleza euskerari aurrea hartu nairik, baina izadian tokian tokiko sinboloa ikusteko itxu da], Euskerak uler dezake Izarari *Irnini* ere deitzea, izarrek

*ñirñir* egiten dutelako<sup>8</sup>. Eroa biak aizkora eta ezpatz armatu eta amarruz joan ziran *Humbaba* “Jaun basa/Basajauna” hiltera. Bidean ohar “kontu, *Wer* haize zakarra dik lagun”. Euskerak ba daki *Ifer* aizea neguan den zakarra. Humbabak zazpi gonak jantzi aurretik, eraileek, baso sarreran kukurio eginik, amarruz oratu zuten Humbaba. Erori zan Humbaba basozaina eta basoak Libanorainoko murruma egin zuan. Iratiko basoak ere ezaguna zuan almadieroen garaian hango *Basajaun* xalo eta *Basandere* arduratsua, Ama jainkuriaren eta Ekologiaren partekide zirelako.

Mitoa mintzo daiño, euskera, mitoen berezko exegeta delako, Arkeologia eta arketipoak lagun.

7 Akkadiarrek Shamash deitzen zioten Utu iduzki jainkoari. Samash adeitzi, Inanna-ren neba Utu lez, zuzenbide zale dager, Enlil, osteraz, zakarto, Baztergo Teologiaren aldeko eta Urolean, gizadi osoa, bat ere jaregin gabe, itotze aldeko.

8 F. Zubiaga, *Mikelats Amaren etxean*, or. 33-34



Enkiduk, ikusi orduko, oratu zion Gilgamesi, zeinek aurkaria azpiratu,

Gilgames eta Enkidu eroe eroak armaz eraso zituzten Izadiko indar biziak, euren ospea haien gainetik ipintzearen eta Istar/ Izar/ Irnini jainkosa gutziestearren, Zeruak zigortu zituan: Enkidu gai-soak jota, Shamash-en oharra entzun eta damurik hil zan. Gilgames larritu bai, baina entzungor jarraitzen zuan, naiz eta Enkiduk, heriotz aurrean, “salba hadi” azkeneko deiak egiten zizkion<sup>9</sup>.

Gilgames lagunaren heriotzaz larritu, hilezkortasunaz samin arduratu, Ugoldean salbu gelditu zen Utanipistin eroiarengana erromes luzea egin zuan. Siduri kamareraren oharri entzungor, aurrera jo eta hilezkortasun bedarra lortu zuan, Utanipistin-en emaztearen erreguz, eta etxera bidean galtzen, (ikus or. 25) bere amesak utsean gelditzen zirela.

### 3.3. Babilonia: Marduk Tia.Ma.T-en aurka

Asiria-ren berakadan, Babiloniak burua jaso zuan akkadiar kideen eskutik. Urien arteko burrukak Temploko abateen dotrinak maneaten zituan. Baztergo Teologiaren abate kideok *Enuma elish* poema atera zuten, Sorkuntza berriko Marduk<sup>10</sup>, gizon-jainko berria, Tia.MaT jainkosa itxurgatuaren aurka, erregearen politika eredutzat.

Aldi berriak seinalatzen dituzte jainko zaharren leinuetatik asita: *An.Sar*<sup>(s)</sup> *Sar.An* itzuliz, *Sar-Ki*<sup>(s)</sup> *Ki.Sar*<sup>10</sup> [*Lur.ki*<sup>(eus)</sup>]. Burruka kideak aurkezten dituzte: *Mummu-k* [*momo*<sup>(eus)</sup><sup>11</sup> “logale”] *Apsu*<*Buzu*>*Puzu* logurea beilatzen du (70), Ea eta *Damkina* bikotea agertzen da (74) Enki-ren *Dama*<sup>13</sup> *Guen*>*kina* (Marra guena>Markina datorren lez). Tiamat Amari izekaz *Hubur* deritso<sup>^</sup> [*Hiburni*, *Ifernu*<sup>(eus)</sup>], *Kingu*, Tiamatek goraldtu, buruzagia (148) [*gueneko*>*kingu*>*king* dator inglesen exegesian ere]


9 “Salvate, amigo mío” (*Gilgames VII,IV,18-25*) [...] me arrastro a la casa de entrar y no salir”.

10 *Marduku*, *Martu mardoaren* semea. *Martu* mautuko etorkina, Sumerren eskondua “*maritua*”, laborari, lanabes berrien sortzailea, *Martintu* gurea bezala. *Ma.aT* sortzaile bikote ezaguna, iraindua *dager Tia*. arketipoa aurretik duela, beragaz piura naskagarria egitekotan, itxurgatu eta erailtea bai-da matxisten burubideko jokua.

11 *Enuma elish*, *Poema babilónico de la Creación*, I, 11-16.

12 Babiloniako erregeek -*Zar* tituloa daroe, Nabukodono-*zar*, Balta-*zar*, etab, je-rontokrazia dutela, aldi barrien berma.

13 *MaaT* itzulua *Dama* da, To arketipoa aurretik duela, Babilen eta Parisen.



Marduku, jainko berriak Tia-Ma.at itxurgatu eta aspiratu duelarik, ugaroan doa haren soinez ontzia eginik. Nabuko Babilongo *Zaharrak* ziguraturik altuena jaso dio Marduki eta haren gaiñean *Exarra*, atxurdinezko *etxea* bizardun jainko guztien bilkurarako. Menfisko iraultzak jarraipena du: jainko aldaketak dakar politika iraultza.

*Anunaki* (84) izenak *Anu*>*Anuna*-ki “Anuren sorkarietako” [*ai-ñaniño*<sup>14</sup> “demoniño” edo *angeru* adierazten], *Anuna*-k(u)*ene*>-*Anuna.guene* “arcángel” bezela.

*Igigi* (III 125) *Ki*<sup>(s)</sup> “lur” >*Iki.ki*>*Igigi* “lurreko sorkari”.

Abateek magia artean eskolatzen dute Marduk eta arma berrietan trebatzen (IV 11-60), burrukara oldartzen dute (60-130). Marduk-ek sarean oratu du Tiamat, arraina bailitzan, bi zaflatan ebaki eta bata zero [ur goiena] eta bestea *apsu buzu*>*puzu* [ur barrrena] egiten, sakoneran *Exarrak* altueran duena.(137-141). *Exarra*, jainkoen batzarrerako atxurdinez eginiko *etxea*. (V 120-122)

*Sin* “iretargi/ hilargi” izena (V 13-18) dator. [*Itxina* mendi eta *Txindoki* luraren satellite honi sagaratuak izan dira gure artean].

*Babilonia*<sup>15</sup> izena goraltzen da (128-137), [*Babil+une/ Un+babel*, atzekoz aurrera itzulua. *Babel*<*Ibai+Balu*>*Bel*]

Gaiztaginen erruduna bilatu zuten *Kingu*, Tiamaten buruzagiak odolaz ordaindu behar izan zuan jainkoen errua. Kinguren odola lurraz nastaturik, Mardukek gizaki berria sortu zuan. (20-40)

*Esagila*<*etxe gailla/gaille* ere deitzen zaio Exarra-ri. (VI 61-78)

14 ANUNAKI> *aiñaniñokook!* “deabru kumeok”, akar egiten zigun umetan auzoko amonaxo batek, umeok barrabaskeriren bat egiten gendunean.

15 Zigurata harriluz egin zana, baiña gaiñeko tenploa harri urdinaz, Anu “zeru urdinaren” omenez. Beraz *Exarra/ Arretxe* ulertzeko adina da euskal exegetarentzat.

Marduken tituloetan sumerioa nabariagoa da eta erritoari indarra emateko erabiltzen da. Irugarrena: (3) *Marukka* [dager eta halantxe



deitzen da Zarpantzar inoteriko ixipudun bikotea]. (4) *Baratzakusu*<sup>5</sup>. (138) [Biblia Exegesis dotoradutza egiten zuteneko euskaldunberri neska bateri egokitu zitzaion atal honen iruzkina: “Esto parece euskera” esan zuan. Barretxoak izan ziran eta maisuak formalidadera deitu]. [Izan ere, *kusoa* da baratzean jartzen den trapuzko begiralea, txoriak nabazia jan ez dezaten. *Ikusi>kusoa* dator, *baratza-kusu* euskera garbian “baratzeko txorimaloa” adierazten].

- (10) *Azaru<azi aro>Azaro* “tiempo de sementera” azaltzen da,  
 (13) *Tutu [>doitu>osotu]* duintasuna bilatzen du (13-21).  
 (17) *Tuku* da, [*Utu iduzkiaren* juzo zuzenaren dohaiak, *tuku*<sup>(euski)</sup> “celo”],  
 (19) “*Zist*, biguria ixilazten duena”, [*Txistik* ere ez. “ni *chistar*”] (40-42)  
 (35) *Gishnumunab* da, [Giza *mirabe* egile] (89)  
 (44) *Kimma* “jainko guztien gidari” [*kima>cima* bera da]  
 (45) *Eziskur* [“*ekur etxe*” <*Zikurat* itzuleztara], “otoitz etxe” (109)  
 (46) *Gibil*, [“*Tiamat* oratzeko *gibilia/bilkia*” “lazo”], (ikus or. 31. irudian)  
 (47) *Addu*, [*Adua, Adar* “trumoi”], “zeru-lurrentzat onurakor dena”.  
 (48) *Alaru* [aullido animal] (118)  
 (49) *Nebiru* “él gobierna sus giros” (137), [*bira, biratu* = girar].

*Enuma elish, Babiloniako Sorkuntza Poematik* “txoriok” bildu ditugu, euskera-sumerioaren eta beste Ama Eskolako hizkuntzen kide izan dena kontuan hartzeko edo “mitoa non, euskera han” bermatzeko.

Joanek (Apok, 17.18) Erroma uriari *Babilonia* deitzen dio, arrokerian eta andikerian elkartzen dituelarik. Babiloniak ondatu ez zuena Erroma zaiatzen zelako ondatzen. Babilonia Persiako Ziro Andiairen menpean erori zan K.a. 539 urtean, akemeniden garaian. Persia orain *Iran* deitzen da eta USAk, *Baratzakusuak* lez, begiratzen dio, ea

15 Exegeta ingelesak edo euskera ez dakitenak lez, mitoak aztertzeko ez dute balio euskerak adiña. “Sí, como quien por un *chori*, piensan que el vascuence se parece al japonés” –beste maisu baten ateraldia. Ez legoke txarto *baratzakusua* UNlan ere. Ezagun ditut batzu, baiña oraingo Marduk boteretsuaren aldeko dira, Aholkulari eta Begirale deritse. “Aizu, Maisu Jaun, Japonen ere goiko/ota-ko ugarteari *Okaido* deitzen zaio eta bekoari *Okinawa* zeozergaitik, euskeran *Ibarrota* eta *Ibarbia* bezala. Txori luma horrek ere lumatu txoria adierazten du.

Buch-en eskutik Bagdag-en lortu ez zuena, Trump-en trampaz halako kaltegina lor dezaken Teheranen.

### 3.4, *Babel Dorrea eta Yawé*

Bibliak (Has, 3) Abraham asabaren errabideak kontatzen ditu, Ur uritik asi eta Ibarratean gora, Aran alderaiño eta handik berako itzuleran Araba aldera, Ber.Sebá aldean, Kanaan eta Sikar-en Garizin santutegia igaro eta gero. Abrahamen hizkuntza sumerera, akkadiera ala ebraiera ete zan? Euskerak bai, ba du tokizen hoi entzuterik, Ama Eskolako hizkuntza, hizkuntza orokorra izan delako.

Horakoan, Mari uriaren bestaldean, ausaz Babilunen Dorrea ikusiko zuan eta hataz galdetu. Abrahamen jainkoa ez zan *Yawé<Yau(m) Aba*<sup>7</sup>, juduek artean ez zutelako ezagutzen izen horrekin, kanandar *Elhojim* izenez baiño. Izen arketipoen aldaketa hori dela-ta, hebreiera hizkuntza halako batasun peituz da.

Yawék bai, ikusi zuan Babeleko Dorrea. “Jatxi zan Yahvé giza-kiek eraiki zuten uria eta dorrea ikustekotan eta ba-iñon bere kautan: “denak dira herri bat eta hizkuntza bateko eta hau euren ekintzan asiera baino ez da. Orain asmatzen duten dena burutze-ko gei izango dira. “Yatxi gaitezen, bada, eta bertatik bertara, naspildu dezagun euren hizkuntza, euren artean elkar ulertzeko izan ez daitezkan.” (Has. 11,7-8) Horixe da Yawek Ama Eskolako hizkuntzei zor dien errespetoa. Indoeuropeistek euskerari dioten bera!

Amaren Eskolak arketipoz arketipo, eunik finena baizen artetsu bilbatu hizkuntza, horrela ezesten duen jainkoa Baztergo Teologiatik urbigago dago, Ebangeliotik baino, Menfisko lapurrekin (ikus or. 15) Parrokiako Karitas-etik baino.

16 *Ibarre>Eibar, Ibarrate>Eufrate*<sup>8</sup> eta *Abraham* bera *ibartar* eta *ibri>ebrei* gendearen asaba, tokizenak gertatzen bai-digu abizena, *Iber>iberi* gendei bezala.

17 “En las inscripciones akkadias se encuentran ya desde el siglo XX a.C., nombres propios compuestos de *Yau* o *Yaum* [...] como nombres de una divinidad” (Yahvéh (IV) Dic.B, o.c., 2016-2017) Cf: Euskeraz *Yaun, Zaun, Jaun* agozkatzen dugu eta “señor” edukinaz eta *Yaun+Aba>Yabe/ Jabe* “dueño” edukinaz. Honez gero, euskal exegetek konturatuko ziran, exegesirako euskerak duen balioz.

## IV IBERISTAK EUSKERARI ADI

## 4.1. Ama Eskolako Teologia

Jainko berrien arazoa *Sorkuntza berria* da eta nola Amaren Sorkuntza gainditu erronka. *Amak amatuz* sortzen du, jainko berriak, direla Ptah edo Marduk, *magia* andienaz. *amakatu* egi-ten dute euren arrandizko Sorkuntzan. Eskubideen lapurretaz landa, konplezudun gizakia sortu zuten: *berezi>fares>fariseu* aparta edo *Gishnumunab* “giza mirabe”, bere jainkoaren morroi, jaingo alargunduok nonbait ezin zentzu osoko gizakirik sortu.


Sumerreko Zikuratua Istar maite jainkosak, kudeatzen zuan, baina Babiloniako Exarra, jainko bizardunen batzarrerako baka-ririk zan. Joanen Apokalipsian Erromari *Babilonia* deitzean, en-feriook zeinen eskolako ziren adierazten du.

Gizabidea, bide arrunta da, Natura bidea denean, bestela, oinarrizko erratua du. Giza sendia arketipoei begira dago: ama, amuna, etab. Horrela irauten du gaurdaino herriak, bere Historia mitoraino luzatzen duela.

Gilgames, bidegaldu zebilen heriotzaren bildurrez, betikotasuna- ren bila. Bidean Siduri kamarerak ba ziñotson: “bizitza hori ezina duk. [...] Jainkoek gizakia sortzean, heriotza gizakientzat erabaki joen eta Bizitza euren esku utzi. [...] Hik, Gilgames. egin zak jai gau eta egun, soinua jo ezak, uretan blai egik [...] eta begiratu ezaiok eskutik oratzen hauen semeari eta emaztea hatorkikala egunero hire ogea gozatzeraz. Horixe dok giza zoria sekulako” (X,III, 15-28)

Ama Eskola, Izadia bera da, Izadia bere Liburu idekia, beste liburu-ruen gaintetik, hagaitik agozkoa da bere irakaskizuna eta maitasuna da bere giroa eta *Beste*-aren arketipoekin maite giroko nabastarreen hitz egiten du, goiak eta beak familia berean oratzen dituela.

Ama Eskolaren hitz agozkatua Mediterraneo aldean nausitu zan Neolitos garaian eta nondik edo handik kultura guztietara zabaldu, Amagazko euren jaiarak adierazten duenez. Kontrakultura ere toki berean sortu zan K.a. bi mila urte inguru, fenizioak bidegile zirela.



a) **Egipto** Ma-aT (8.000 K.a.) b) **Neosumeria**, Mari c) **“Iberiako Dama”** aginte eta salbaidede señudun. ontzi omengarria eskuan fede seiñu berdinekin a) Mediterraneo inguruko Ama eskubideko Eskola Arkeologia eta Arteak: a) Ma.aT, Balantzaren *buruko>fulkro*-dun, *was>bastoia* esku batean eta *ank>aingura* bestean. b) Langi-Mari erregearen bezuza (XXV K. a.), Mari uriko Arkeologia indusketakoa, Alepo-ko Museuan c) Iberiako Dama, Cerro de los Angeles-ko indusketakoa (Almería) (VI K. a.)

## 4.2. Ama+Aitarene eta Moisen aginduak

Ama Eskolak Amaren oharrak jarraitzen ditu eta gogoan hartze-koak dira “agindu, manamendu” deritsaien oharrok eta Moise- ren manamenduak baino milaka urte zaharragoak dira. Moise gainera, Yawe bere jainkoaren ohoreaz arduratzen da bederen, Ama osteraz, bere umeen heziketaz.

## 4.2.1. Ma.aT-en manamenduak ezagutzen diren zaharrenak:

- 1) Ez inor hil eta ez inor hilterik amore eman.
- 2) Ez saldu maite duzuna edo haren eskonkidea.
- 3) Ez bizi aserreen.
- 4) Ez sarrakiorik zabaldu lagunartean.

- 5) Ez eraso eta ez mindu lagunurkoa.
- 6) Ez uztiatu geidea eta ez onartu joputza.
- 7) Ez egin gizaki edo abere mindu dezaken kalterik.
- 8) Ez negarrik eragin.
- 9) Aintzat hartu lagunurkoa.
- 10) Ez ostu zeurea ez denik.
- 11) Ez jan dagokizun baino eliku gehiagorik.
- 12) Ez kaltetu Izadia.
- 13) Ez inor maite duenaz gabetu.
- 14) Ez urten gezurraren lekuko.
- 15) Ez esan gezurrik, inor kaltetzearren.
- 16) Ez behartu besteak zeure eritzira.
- 17) Ez jardun besteak kaltetzekotan.
- 18) Ez maizeatu besteen bizikera.
- 19) Ez zelatatu besteen arazoak.
- 20) Ez aztu Egia eta Justizia.
- 21) Ez inor juzkatu, ezagutu barik.
- 22) Aintzat hartu toki sakratu guztiak.
- 23) Aintzat izan eta lagundu sufritzen dagoena.
- 24) Ez zaitetz aserretu, benetako arrazoi barik.
- 25) Ez ostopatu uraren bidea.
- 26) Ez alperrik galdu urik zeure beharrianetan.
- 27) Ez kutzatu lurra.
- 28) Ez alperrik agotan hartu Inko izena.
- 29) Ez gaitzetsi besteen siniskerak.
- 30) Ez uztiatu besteen eritziak, txarto egiteko.
- 31) Ez larregi edo gutxiegi errezatu Inkoei.
- 32) Ez uztiatu auzoaren ondasunak.
- 33) Aintzat hartu zenduak.
- 34) Aintzat hartu egun sakratuak, sinistu-ezarren.
- 35) Ez ostu Inkoei egin opariak zeuretzako.
- 36) Ez ezetsi errito sakratuak, nahiz atsegin ez izan.
- 37) Ez kali abererik, benetako arrazoi barik.
- 38) Ez izan lotsagabea.
- 39) Ez jardun andi ustez.
- 40) Ez arrotu ondo izateaz besteen aurrean.
- 41) Astapenok aintzat hartu.
- 42) Aintzat hartu legea, astapenon bideko bada.

Maite Teologiaz aparte, Ekologia bera dira aMa+aiTa-ren manamenduok eta jainkorik aipatu gabe ere, *Laudato si* aurretik amak umeei eman dizkien oharririk duinenak. Lehenengo aginduko "ez inor hil eta inor hilterik amoreman" kristau elizak ere ez du bete gizaldietan, egunotan (2019) Frantzisko aita santuak arteztu dueño.

Benetan Ma.aT-en *was>bastoia* eskuko baizen zuzena da eta bere jakinduria gaur egun ere baliotsua.

*Ma.aT*en jakinduria Kosmo-Izadiari lotua dago, Egiptoko pensalariarena bezala. Arketipoei begira, *aMa.uTu aN*, *Ki* aldi beretsuan *Bit Yakin* deitu Sumerreko jakinduriaren garaikide da. Mari izena aldiz Neosumeria garaikoa dager, jakinduriaz giza baitari, hotz, sikologiari lotuagoa dager.

#### 4.2.2. Mari-ren marrak

Aginduak juzoa dakar: esaneko denari saria, ezpaere, zigorra:



Ma.aT-en juzoa: Ezkerretik eskumara. Or seme zintzoak arima bat aurkezten dio Osiris aiTari, bere ostean Ma.aT eta Isis jarraiko kidea, juzoaren lekuko



Zalduendoko Initean *Markitos* juzkatua, *marken* irakurketa, ama eta aita eskuman erabakiaren lekuko.

#### 4.2.2. Mari-ren marrak

Ez ostu.  
Ez esan guzurrik edo ez den gauzarik.  
Ez inor hil.  
Ez arrotu.  
Aintzat hartu, errespetatu lagunurkoa.  
Emondako berbea bete, berbako izan.  
Bata besteek alkarri lagundu, auzolanean:

Ma.aT-en balantzako lumak erabagitzen du saria ala zigorra Egipton: Saria Osirisen zerua, zigorra Otsokoren sabela.

Mariren juzoak “ezaz eta baiaz bizi naz” erabakian agertzen da beinipein, hotz, ezari falta zaizkionak eta baiaren gehigarriak bereztat gordetzen ditu, umeen gezurrak ekidintzearren. Gonbara Ma-at-en balantzako burukoaz. Edozelan ere gizatasun mailan erantzukizunera dei egiten digu, “aukeratu zeuk nahi duzuna” bailiñoan.

Mariren manatuak *marrak* gizabidea markatzen dute. Mariren gidak ba ditu jakituriazko beste esakera batzuk ere: “guzurtiak bere burua engainatzen jok”, “ez egik gatzik eta ez euk bildurrik”, “gatzik eitenbok, hainbeste itxadok”, “hilte bok. hil haikee...” etab.

Amurabi-ren garaiko Sumerren, ereligino arazo nastuetan, ibaiko ura hartzen zuten juzo ordele: uretatik bizitik urtetzen bazuan errugabe, urak bazeraman, errudun. Horixe bera egiten zuten erromatarrek, sua ordele zutelarik eta Erdi Aroko kristianoek *ordele* burrukak ere asmatu zituzten, *ordalia* izenekoak.

#### 4.2.3. Moise-ren manamenduak

Jainkoa gauza guztien gainetik maitatuko duzu.

Jainko izena ez alperrik agotan hartu.

Jai egunak jai egingo dituzu.

Ama eta aita dedutan izango dituzu.

Ez duzu inor hilgo

Ez duzu aragikeriarik egingo.

Ez duzu ostuko.

Ama aginduak Moise-narekin gonbaratuz, behingoan konturatzeko gara beste jakinduria batekoak direna. Ez da gizarteko, ez izadiko jakinduria, abateek, Sinaiko trumonadan asmatuakoa baizik. “Zein da Legean lehen agindua? galdetu zioten Jesusi eta berak erantzun: Ba dakizu, “Jainkoa gauza guztien gainetik maitatuko duzu [...] eta bigarrena, bere adinakoa, lagunurkoa zeure burua lez maiteko duzu” (Mt. 22, 36-40). Hagaitik gara *Denok neba-arreba* adineko Amarene gizartean. Jesusek Moisen utsak osatzen ditu (Mt. 6.17)

Mardukek “gizun minabe” sebitzariak (ikus or. 32), sortzen

ditu eta Amak sortu eta bularraz inutzen ditu gainerako elikua ere *giza* mailara *gisatzen* duela. Hagaitik esaten dugu Inkoa ere *gizatu* egin zela *giza*-seme-alabengana bere Espiritua bidaliz.

Parte oneko aginduak gizakiaren askatasunerako dira eta parte txarrekoak gizakia jopu bihurtzeko asmotan ipiniak, demokrazia deritson herri agintea eta faxismo legea diren bestean.

#### 4.3. Erroma eta iberiar Dama

Erromako faszioak K.o.-ko 48-garren urtean sartu ziran eta gure lurrak zapalduala, Ama Aginteko seiñu, Amaren irudiak apurtu eta lurperatu zituzten, edo etxe-koek eurak izkutatu, apurtu ez zezaten. Handik bosgarren gizaldira, bagauden mogimenduak-eta bultzatuz, Erroma erori zenean, herriak arnasa hartu zuan, baiña Amaren irudiak lurpean edo izkutatu, askoren arketipoak ohargabe ilunean lez, gelditu ziran, arik eta lurra mugituz, arte eta arkeologoaren susmoak esnatu zireno.



iberiar artea

Orduan gertatu zan Marija Gimbutas andrearen bezelako iraultza Iberian, Edeta lurraldeko Lirian oinarriak idoro zituztenean eta Granadako Bastiedan irudi paregabea, aginte aulkian eseria, aurkitu. “Bazako *Dama*” izena ipini zioten, ez zekitelako ezizena zenik, Marduken Babiloniako abateek *Damakina* <*Dama Guena* lez agertzen dena (ikus or. 30) eta izen bera da gero Bibliak lehen gizonari deitzeko darabilen izena: *Adame*<sup>2</sup>, “eta gizonak emazteari *Eba* deitu zion”. *Dama* jarri zioten Iruña Veleian goldepean aurkitu zuten Ama irudi irainduari ere, jatorrizko izenez, *Ma.aT*>*Maite*>*Maddi*>*Maxa* zena ezjakinean.

1 F. ZUBIAGA, *Iruña Veleia, el Calvario de Euskal Herria*, 27)

2 Bibliakoak sorkuntzak jainko bizardunen sorkuntzaren antza du. Naiz eta (Has. 1,2 “gizon eta andre sortu zituan” dinoen, baina gero (Has, 2,27) Eba Adamen saihetzetik sortua lez dager eta aberei izenak ipinten asten da, Baradisuko jabea bailizan edo Amaren Eskolan lehendakari izan.

“Jainkoak ba dino: Egin dezagun gizakia geure irudi eta sene-ko”(Has.1,26) bere irudira sortu zuan gizakia, ar eta eme sortu zituan [...] “naroak izan eta ugaritu zaitezte” [ohar egin zien] (Has. 17-18) Hizkuntza Ama Eskola denetz ez dager, baina sorkariak izenez bataiatzea eta emazteari *Eva* deitzea Adamen sarretokeria ezpada, Ama Eskolaren aurkako idazlariaren zirria da.

#### 4.4. Iberistak euskerari adi

Geure arketipoen bilaketan egindako ikerketen artean Bastetania, Granada Aste egaleko hilobi harrokan K.a, IV, aurkituriko irudi harrigarria dager. Andre exeria, erregina, ala jainkosa? Ezin zuten erabagi arteko arketipoen ezjakinean (ikus or.41) eta *Dama de Baza* izena jarri zioten, beste antzekoen artetan bereizteko, baina itxuraz Maite>Maddi da eta *Adame* senean oker eskolatuek eman zezaioketen *Dama* tituloa. (ikus or.35-koa ere)

Andrearen narotasuna ikusteaz bakarrik, Ma.aT, Ama Eskolan Maesa dena, ezagutzen dugu edo harekin bat egin nai duen alabarena eta hilobiraino haren babesa eskatzen duena. Eskerreko eskuan duen Urso mezularia, otoitza bezala, beak goiaz lotzen dituen lokarria egiten dio eta eserita dagoen egadun aulkia, igongailu aparta du usuaren parekide.

Baina zer esan gura digu? Dakigunez *Basate>Bastia>Baza* dator. Tokizena dakigu. “*Lenguaje de la diosa*” falta zaigu. Balekar, iberistek euskerari galdez legez, berak balekikela uste bai-dute, iberikoa ulertzeko ez bai-dute beste *Roseta harri* zigurragorik euskera baiño. Agozko doinuz eldu zaizkigun tokien agotsak argiago dagoz berunean idatzi zirriborroak baiño.

Zer geldi daiteke zutik erromatarren zapalkuntza ostean? Ba-



Iru *Inko* askatuek izan ziran Fallas labetik *Ninot* epaian, gurean *Inote* ospatzen den lez, Beran eta Donostian...



*Bazako Dama* Bastiako hilerrian, harri berean taxutua, esku ezkerrean ursoñoa dauka (ohar Ator) kuzkodun idunekoa (ohar Ma.at-ena) Zenduak bere juzoa onesten.

kea “Pax romana” famatuaz aparte? Arkeologoen egia hain zuzen. *Turia* izena bera ere aldatu egin zuten erromatarrek, lehena errotik aztua izan zedin, *Valentzia* deitu zioten. Euskerak obeto ulertzen du *Turia*, *Aturri*, *Atxuri*, *Iturrria* sendiko lez, urbilketa bat egiteko. Ez da erreza. Itxasoan alderik aldera Astean *Tiro*, Ostean *Turia* kultura beretsuko itxasketa iragarten du, bizitzan *bide>fede* parekide biltzen dutenen jainko izenak aurretik dituztela.

#### 4.5. Iberiera eta euskera

Valentziako zabalgunea amaitzen den unean aurkitzen da *Edeta*-ko uria *Lliria*<sup>3</sup> mendi munean gorako mailadan zurubiak egiten eta *otatu>osatu* berea egiten. Haren erauskinetan, ontziak, idazkunak, etab.: arte eta jakinduriako mezuak aurkitu dira. Politikak gaur bertan Arkeologiari dion begirunea dela-ta, arkeologoak, *ertena* ezpada, nortasun agiriak izkutatu egiten ditu.

Zaldi eta zaldunak, gudatetan bederen, bat egiten dute borrokaren aginean, eroi bat bailitzan. Ortik, uste dut, atera behar litzakiola aurkezten dugun izkiri-miri halako marraski eta iskribu honi bere gatz eta piperra. Arkeologoak prestatu bezala uzten dugu.

Horra Lliriako ontzi famatua, marraski eta idazki egina eta euskera ere iberiar kulturako arnasa egiten duena.(ikus or. 42)

Lurpean egortzi zen mezua ama euskerak atera behar zuan lurpetik, amaren eginkizuna delako etxeko zenduen eta bizien ardura eta agaitik dator *andera>santera* izena ere, euskera amak arkeologoen lana egiztatzen du eta *Ma.aT maitasuna* hilezkor aitortzen.

3 Gure urbileko otsak *Ateta/ Atieda* lirake batean eta *Olleria/ Olaria* bestean.

A). *Transcripción. [del ibérico]*

1. BA(PA)-S-E-R-DE(TE).
2. BO(PO)-N-A-N-DI(TI)-DE(TE).
3. N-I-BA(PA)-R-DE(TE).
4. BO(PO)-R-DE(TE)-BA(PA)-R-A.
5. GA(KA)-RR-E-Z-I-R-GU(KU)-E-GI(KI)-A-R.
6. E-DU(TU)-R-DE(TE)-E-GI(KI)-A-R.
7. BA(PA)-N-GU(KU)-DU(TU)-R-I-R-A-DI(TI)-A-R.
8. BA(PA)-N-I-R-DE(TE)-R-DE(TE)-DI(TI)-S-A-R-I-BE(PE)-GO(KO)-R.
9. BE(PE)-L-A-R-: BA(PA)-N-GO(KO)-R-BO(PO)

B). *Secuencia.*

1. BASERTE.
2. BONANDIE.
3. NIPARTE.
4. BORTEBARA.
5. GARREZIRKUEKIAR.
6. EDURTEEKIAR.
7. BANGUDURIRATIAR.
8. BANIRDERDETISARIPEGOR.
9. BELAR: BANKORBO

C). *Lectura*

1. bas(a) erte(n).
2. bon(et) and(i) ite. [uste]
3. ni parte.
4. borte bara.
5. garre sirku eki-ar
6. edurte eki-ar
7. ban gudur(ari) ira tiar.
8. ban ir(a) derde-ti sari pegor.
9. belar: ban korbo

garre: v. *garreia(tu)*, que el DRALV traduce por acarrear o llevar. Pero la expresión *garre zirku* obliga a reparar en la idea de habitualidad en el tránsito o recorrido por la senda: lo traduciremos por “toma” o “está presente”.

*zirku* o *sirku*, n.: senda, camino.

*eki*, n.: sol.

-ar: sufijo temporal, “a tiempo de”, “a punto de”.

*edurte*, n.: nevada, tiempo de nieves.

*eki*, n.: sol.

-ar : ya visto.*ban*, adv. de tiempo: sin cesar, sin parar, constantemente.*gudulari*, n. *ira*-Pero, ¿dónde está el núcleo del sintagma nominal, es decir, *zaldi*= caballo, que en ibérico.



D). *Análisis morfológico.*

*zaldi*, n.: caballo.

*da*, verbo izan: es.

*basa*, adj.: salvaje.

*erten*, adj.: atrevido.

*bónet-andi*, adj.: señorón.

*ite*, n.: semejanza, aspecto.

*ni*, adv.: siempre. No se cuenta en el DRALV (Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca) con esta acepción, que, en cambio, sí presenta muchos derivados: *nioiz*, *nioiz ez*, *nioizko*... Su valor siempre queda acreditado en muchos otros textos epigráficos, especialmente en lápidas funerarias.

*parte*, n. y adj.: parte, partícipe.

*borte*, adj.: bastardo, hurraño, arisco.

*bara*, n.: traba. [*baratu*, *parar*]

[Lirriako pitxer baten dagger irudi hau iberiar iskribuekin. *Zaldi/ zaldun da* deskribatzen] **X**=*da* zaldunaren paparrean dagger

Nor da? *Zaldi zalduna ala zaldun zaldia?*

adj.: guerrero, combatiente.

*ira*, n.: ira, cólera. *Gudulari-ira* = *gudurar(i)ira* = *gudu(ra)rira*, literalmente “guerrero de ira o iracundo”.

-*tiar*, adj.[sufijo]: partidario.

*ban*: ya visto.: prefijo verbal que hace al verbo factitivo.

*derde*, n.: abandono. Este es un sustantivo postverbal por lo que la presencia de *ira-* le confiere valor factitivo: abandona.

-*ti*: sufijo que indica frecuencia, en relación con *ban*.

*sari*, n.: pastizales alrededor de la cabaña.

*pegor*, adj.: pobres.

*belar*, n.: hierba. *bar*: ya visto.

: dos puntos (que no tres como en las separaciones) que, como en castellano, suponen aquí un alto en la dicción, pero que realmente implican unión o proximidad. Véase *gudua:te iz tea(n)* en Guerra IV. *korbo*, n.: pesebre rico se escribe como en la figura segunda?

E). *E).-Análisis fonético.*

- Obsérvase, con carácter general, la constante ambivalencia de los signos ibéricos silábicos que ante vocal, representan a la consonante oclusiva sonora o a su correspondiente sorda indistintamente. (Sección Lengua ibérica, Fenómenos fonéticos de simple alteración, letra e).

- En *bas(a)erten* hay elipsis al final del primer término (Len. Ib., Normas de aglutinación, 1)

- Enmudecimiento de /n/ final: *baserte(n)*. (Len. Ib., Fen. fonéticos de elisión, letra h).

- En *bon(et)andite* hay elipsis continuada al final del primer término (Normas aglutinación, 3).

- Asimismo, elipsis al final del primer término con encuentro de vocales iguales: *bonand(i)ite*.

- En *eki-ar* hay una yuxtaposición necesaria (Normas de aglutinación, 2).

- En *gudulari-ira* hay alternancia r/l: *gudurari-ira* (Fen. fonet. de simple alteración, letra i).

- En esta composición, también elipsis al final del primer término: *gudurar(i)ira* (Normas..., 1).

- Asimismo, haplogía: *gudurarira* > *gudu(ra)rira*. (Normas aglut. especiales, 3)

- En *irderde* hay elipsis al final del primer término: *ir(a)derde* (Normas..., 1)

- También enmudecimiento de /n/ final: *irderde(n)* (Fen. fon. de elisión, letra h).

Reparemos en ese extraño haz de flechas situado en el lado izquierdo, tras el caballo, que bien podría ser, por su posición, el comienzo, el título del texto. Y para que comprobemos que, en efecto, lo es, el artista y escriba nos da tres claves para su interpretación: 1ª: Las cuatro letras tienen tamaño decreciente de la primera a la última. 2ª: Se ordenan de abajo arriba. 3ª: Hay en cada letra a partir de la inicial, reutilización de trazos anteriores, lo que da al grafismo un cierto aire de acertijo o juego. Aparece, en primer lugar, un eje vertical de trazo más grueso, sin valor lingüístico alguno, que actuará de soporte (Fig. 1); luego, fig. 2, se incorpora la Z inicial; en la 3, aparece la A ; en la 4, la L, y, finalmente, fig. 5, la DI.

F). Traducción literal

El caballo es salvaje y atrevido, aspecto de sombrero grande, siempre partícipe, arisco a la traba, está en la senda a punto del sol, en tiempo de nieves (también) con el sol, partidario sin parar de la violencia de la guerra, abandona constantemente los pastizales pobres de los alrededores de la cabaña; hierba: sin parar en el pesebre.

G). Traducción propia.

El caballo es indómito y bravo, aspecto de señorón, siempre partícipe, rebelde a la traba, está en la senda a punto del sol incluso en tiempo de nieves, dispuesto constantemente a la violencia de la guerra, abandona frecuentemente los pastizales pobres de los alrededores de la cabaña; en cuanto a la hierba, siempre en el pesebre.

H). Comentarios.

1.- La interpretación rigurosa de la lengua ibérica trae consigo un aluvión de conocimientos: hay textos descriptivos, filosóficos, poéticos, religiosos, moralizantes, didácticos, festivos... Nos muestran un pueblo pacífico, laborioso, creyente, civilizado, alegre y dotado de una enorme dignidad personal: un pueblo maravilloso, en conclusión. Y junto al orgullo de conocer, al fin, a nuestros verdaderos antepasados (los hispano-romanos no fueron otra cosa que el resultado de la unión de los salvajes y genocidas romanos con los iberos traidores a su pueblo, esto es, una de las dos Españas, la de los Señores), las consecuencias variadísimas, incluso socio-políticas. *Pero aquí y ahora, quiero centrarme en esta afirmación categórica que brota incontenible: La Lingüística y la Historia de España deben prepararse para experimentar una intensa conmoción.* [Ya es hora que la UNiVersidad atienda a este clamor]

2.- El texto analizado consta de 30 formas. De ellas, 16 han llegado vivas al euskera actual y algunas al castellano: zaldi, da, basa, andi, parte, borte (bort), eki, ban-ban, gudulari (gudari), ira, ban-ban, -ti, belar, ban-ban. Todas las demás, 14, figuran recogidas en un buen diccionario del vasco antiguo, como el Retana de Autoridades del Euskera: erten (atrevido), bonet (boina, sombrero), ite (semejanza, aspecto), ni (siempre, raíz presente en nioiz, nioiz ez, nioizko), garre (llevar, indeterminado de garreiatu), zirku (senda), -ar (sufijo, a tiempo de), repetición de -ar, -tiar (sufijo, partidario), ira- (prefijo que hace al verbo factitivo), derde (abandono), sari (pastizales alrededor de la cabaña), pegor (infecundo, pobre) y korbo (pesebre). Un resultado similar se obtiene tras el análisis de 123 textos epigráficos ibéricos.

4 [Dic. Retana de autoridades de euskera. Autores: Manuel Sota, Pierre Lafitte, y Lino Akesolo, mas la colaboración de otros seis renombrados autores].



Ezkonberriak eta bizitza den espirituaren “ontzi omengarria Neosumeriatik eta Iberiaraino agertzen den bide>fede gorde-ten dutelarik. Argi dago bai herri amatar eta baketsu zirena.



Iberiar iskribu asko berunezko zafletan gorde al izan dira lurpean. Duten edukina argitzen denean jakin al izando dugu iberiar amatar kulturaren berri pozgarria, hispanismo galgarriaren gainetik.

Eta harrian taxutu ezkonberrien irudien aurrean, “nor da andiago ezkonduen artean edo nebarreben artean” galdetzean, Inanna eta Dumuziren arteko eztabaida gogarazten digu<sup>5</sup>. Nor da, batez ere, ontzi omengarriaren eskuko, *ur utxa>urruxa* bera izan ezik? *Urruxa>orza<sup>(gaz)</sup>* dator.

Giza arketipoak ezin dezake Bestearen arketipo maila errongatu, naiz eta bizi iraupe-nerako Bestearen arketipo peitua izan. Orain Beste harekikoak konpondu beharko

ditu, Amaren aginduak aholkatzen dutenez<sup>6</sup>.

[Zaldi zaldunari buruzko oharra: *ban* “ir” dager iberikoan, Oñatin “joan da” *fan da* esaten da, *va, van<sup>(gaz)</sup>* formak hor dute sorgua. Baina nor doa *fan? Utu>jo>Jotean lez, joan, hitza gizatuez gero, be-joan>bajoa>badoa>ban doaz]*

[Ama “zeru” da, Aita eguzki”; amari *eseri>esere>izan* dagokio (ikus or. 41), Ra/ oR eroeek *fateko Karra* edo *Orga* behar dute. *kaRre>garre/ carro* “Ra gurdia”, eta hor dago itzuleztara *arka>barca* ere eta hor dago Or “Inko seme”, *orei* “nube”, berezko *orga* espazioan duena, “gurpildun *gurdi* lurean”]

5 “Ni banaun Utu beste” dino Utu Musu>Dumuzik eta Inannak jardesten: “Nire anaie Utu ezpalitsok, hi kalera urtikia eta beheratua izango hintzake” (*Pride of pedigree*, 6, ANET, 638) Kristau arteak ez du forma ederragoz azaldu ezkontza.

6 “Gilgames, nai enduken bizitza ezin dok lortu. Jainkoek gizadia sortu joanean, giza-kientzako heriotza erabagi joen eta Bizitza euren eskuko gorde” (*Gilgames*, X, III, 10-15)

V. KARTAGO eta JAINKO ARKETIPOEN DANTZA

**5.1. Iraultzaren Tenploan**

Gudu gizonak iraultza Tenploko dorretik gainbera asi-zaleak dira eta lendabizi emakumea apartatu egiten dute euren bidetik, kendu bere postutik, amek gudazale ez direlako. Gizezkoek goiaz eta beaz jabetu behar izaten dute, berdin Bestearen espirituzko arketipoaz, txoriari egoak moztuz', txoria txori nioz el ez dadin.

Akkadiarrek Uruk-en egin zuten sarradan jainko arketipoen dantzaz asi zuten burruka eta orobat gero ikso-feniziar kultura-koek Iberian, Kartagok atanda Tunezen jarri zuenean. Gotik jainkoen nortasuna aldatu eta betik, No To nortasunen arremanak eten: Bazter Teologiak egin zuena bera: To goratu, No baztertu edo Maite zena Adame>Dame bihurtu, liburu santuan bezala,

Halabaina Gramatikan salbuespenak dagoz: amak ez du bere jarduna baztertu. *Ni, mi, moi, may* beti dirau lehen persona, amatar arketipoz eta *Tu>you>zu>yi* beti aitatiar bigarrena. Besterik da arketipoak *akertipoekin* burrukatzen direnean.

Aria puntatik oratuta, Ma.aT-en aurka BaTa>Ptah asmatu zutenek asi zuten triki-traka horren triskantza, Menfisko abaten soinuaz. Joku beraz, Enki uren kudeatzailearen orde, Enlil, jainko armatua Uruk-en zein nagusi bekainaz sartu zenean. Guda soinu honek Babiloniako Exarra aurrean burutu zuan kalejira: Ma.aT, Tia.MaaT itxurgatu, eta ezpata dantzan bailitzan, Marduk jainko armatuaren gibilian bildu, sarean jausi eta ezpataz bi zaflatan erdibitu zuenean.

Nitzsche Gramatika salatzen bai, baina es zan izan lehen jainko hiltzaile, Ama jainkoa izan zelako lehen eraila. Nietzschek ezekian arkemitoen berririk, jainkoa hiltzat eman zuenean. Hori arkeologo lan bikaina izan da. Eurai esker jakin al izan bai-dugu egia osoa.

1 Antxinako *akertipoen* jokera sail bereko diren gaurko tipoek argitzen digute gizaki *adu>patu>patutu<Pazuzu* nortzu diren: errosarioa eskuan eskumuturreko arengari Salbini bat, Biblia eskuan, santuen gerizpean Trump bi eta, ebangelisten kurutzatu egin, Bolsonaro irugarrena. Mutilok Templo dorreaz jabetu dira.

Sorkuntza bakoitza bere frutuetatik ezagutzen da (Mat. 7:16-21) Ma.aT, ama sorkuntzak, gizaki berria eta etorkizuna dakar, Ptah, Marduk, Brama edo Jupiter-en sorkuntzek osterera, lotsa eta gizakia- ren morrontza. *Amatzeak* askatasun eta bizi atseginerako sortzen du gizakia, *amakatzek* osterera, joputza eta zorigaitzerako.

**5.2. Kartagoren sarrada**

Guda gizonak kolpeka erail eta kolpe errepikatuz aldatu nai dute herriko zoria. Marduk-eri *ino in* “esan eta egin” magia erakutsi zioten abateek, “egin eta desegiteko almena” alegia<sup>2</sup>. Hortik asten da jainko arketipoen dantza: *Anatu* Ugarite-teko maite jainkosa armatu behar zuten: ”bedi *Tanit* zeruan eta munduan, emakume arma ta guzti eta berari eta bere maitale Baal-eri, Bal-Hamon señalatuari, aldarea eta opariak eskeiniko Kartagon.

*Anatu>Tanit* bigurtzen duteneko, hitzetik ortzera aldatutzat ematen dituzte zeruak. Gudu gizonak amatiar eskola aitatiar kuartela bihurtzen duteneko, goitik bera aldatu dakuse zoria. Haraz gero, Kartago eta Roma ere elkarren parean jarri ziran, zein baino zein *akertipoago*, eta bien erdian bereak jasan zituzten bereberrek Magreben eta Iberian Kartagoko gudarosteagandik Erromara bidean.

2 “Colocaron en medio de ellos un vestido y digieron a Marduk [...] la palabra: Decide aruinar o crear, habla y así será: Abre la boca, y el vestido desaparecerá [...] (En efecto) habló con su boca y el vesido desapareció” ( *Enuma elih*.IV, 19-23)

ZENBAKIAK ARKETIPO ERATARA						
AN	UTU	ERRA	ILU	BA	KA	ASA
un	dui	iru	lau	boga	seka	zapa
ZENBAKIAK ARKETIPOEN IRAULTZAZ						
bat	bi	iru	lau	boga	sega	zapa

Arketipoak maiuskulaz: Teilape txikian, giza arketipoak. Jainko+gizaki=orokor Izena arketipoz aldatzea kategoriaz aldatzea da: aN=ama Inko arketipoa, BaT= giza arketipoa+aiTa jainkozkoa: Ama arketipoa desagertzean, Ama inko Eskola eredutik Aita giza jainko eskola eredura aldatzen da. Teologia iraultza hau Menfis Egipton, XIX Dinastian egin zan, *Ptah* “denen aita” *ta tenen*<sup>(k)</sup> aitortzean, Tebas nausitu zaino. Aldi beretsuan, 2000 urte K. a. Sortzalde Urbileko jainkoek *jam* tituloz dagerz



### 5.3. Baloreen galpena

Arketipoen dantzaz gertatzen den balore dantza ulertzeko ohar euskal numeralekin gertatu zena. (ikus or. 47) Euskaldunok ere misiolari goiztarrak izan bai-genitun eta, Nilo Deltan, Tanis Dinastiako abateak aurki. Geure aMa+aiTa, amatar sena, aztu eta Bata jainkoaren bidea erakusten ziguten, gaurdaiño buruz eta ez Dotriña lekuan, ikasi gendun kantagaia: “Esak bat. -Gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gozak gu<sup>4</sup>.” Horrez gainera, ba dagoz dotrina bereko esakerak, adibidez, “Jaikoa, Bat eta bera naikoa”/ “Batek ba-daki”, Ma.aT maitearen pare egitura apurtu gurakoak.

Anatu, maite jainkosa, ohoratua izan zan Ugarit, kanaandar portuan, eta iLu-ren *alym*<sup>(w)</sup> Baal zuan maitale *alena*<sup>(eusk)</sup>. Ugarit-eko jendea *ugaroaz* bizi zan, punike>feniziar<sup>s</sup> senekoak ziran. Tirotik zehar, etorkinok Tanis Deltan atanda hartu zuten. Herria gudarako armak prestatzean, *Anatu*> maite jainkosa *Tanit* bateatu eta armetan eskolatu zuten Kartagon, Erromari agiñak erakustekotan.

Kartagok, Erromara bidean, zubi egokitzen hartu zuan Iberia eta hemendik igaro zan, erromatarren lagun Sagunto ezik beste ostoporik gabe, Zilarrezko txanpon otsaz gudu taldea gotortu zuan. Gero bidean utzitako Tanit-en arpegia Eltze aldean 1897 urtean, aurkitu omen zuten eta iberiar Damatzat hartu. Ulertuek punike-iberiar artetzat hartzen dute, kare harrian ederki tailutua. (ikus or. 40)

Tanit nortasunak Anatu izenaren narotasuna irauldu zuan, Ama Eskola utzi eta kuarteletik igarotako alabaren antzera. Ohar bere *ama* arketipoa -N- aiTa arketipo -T bikoitzen erdian, *ino-in* egina, hitzaren magia, oinarri bako airearen buruz gobernatu gura duenaren gisan.

Menfis-en asi zen magia eskola Babilen garatu zan eta geroago, Kartagok, bere guda trebeziarako, uztiatu nai izan zuan.

4 Bizkaiko fomaz aparte, ba dago Oiatzun-eko beste bat, baina azkenean datorren funtsezko zatia, “berak salbauko gozak gu” falta zaio.

5 Mediterraneo osoa ezeze, Atlantikoraiño sarradak egiten zituzten, zilar bide eta emparauetan jainko jaiera eta haien irudien salgaiak artean.



**Eltze-ko Dama** ere nonbait Tanit jainkosa errebesaren irudietarikoa da: ezbaikor, errebes, otsoekin dantzatu duen neskatoa lez, argia eta geriza, bizia eta heriotza naste. Baztergo Teologiaren gudate larriak ume errugabeen bitimak behar omen zituan Tanit eta Baal-Hamon-en laborako, bizidunetan umeak ekortzea bai-da erresena, okerrena, bigurriena, iraulgarriena.

Babilonia garaian, 2000 K.a. jainko izenei *yaun-*, *yau-* titulua aurizki jartzeako ohitura sortu zan. Horrela, *Anu>Yaun>Jaun*, *Juno* etorri zan, *An>Yana*, *Aba>Yabe*, eta *Baba>Yaue*, *Inko Jaun>Jaun Inko>Jainko*, euskeraren oroitzan ere.

Aztertu dugu *Ma.aT*<sup>(k)</sup>>*Tia-mat* bihurtua hitzaren magiaarren, *Ma.Da>Dama* egina edo *Adam*<sup>(h)</sup> Baradisuan, *Antu>Aton*<sup>(b)</sup>>*Adonai*<sup>(b)</sup>>*Adonis*<sup>(g)</sup>, *An>Tan/Tana*<sup>(f)</sup>, *Nana>Diana*, *Mater>Demeter*<sup>(g)</sup>, *Mirian>Tamar*<sup>(h)</sup>, etab., *Anatu>Tanit* aztertua bezala.

Hizkuntza arruntean *No>ño/To>txo* formak kinkan dihardue “*qué hay txo*”>*queaixio>kaixo* datozela mutil eta nesken-tzat, bakoitzari dagokion dedua, edo noka/toka adizkerak “nai jonat/dinat/nai joat/diat” baloreak galzorian.

Beti ere, mitoa mintzo, arketipoen aldaketak, magia, ohargabea eta guzti, arketipoen edukinen galpena dakarrelako. Hagaitik bakoitzaren edo talde ahargabe ilunetik irteteko, arketipoak idoro behar ditugula dinosku Jung sikiatrak.

Asaben memoria egin, gudateko odol sarraskiak, eztabaiden goibeak aztertzean eta kontatzean bezala, Ama Eskolak hizkuntza bera sortzean eta Gramatikaraiño jaso zuen erri-tozko trebezia zaindu behar dugu ezarduren aurka.

6 (Yahvéh (IV) Dic.B, o.c., 2016-2017) Euskeraz *Yaun*, *Zaun*, *Jaun* agozkaten dugu eta “señor” edukinaz eta *Yaun+Aba>Yabe/Jabe* “dueño” egukinaz

### 5.4 Anibal-en gudu-jokua

Erromara bidean Anibal Barka<sup>4</sup> gudaroste andiarekin igaro zan Iberia Astetik eta bere zirkuan Afrikako elefanteak ekarzan bizkarra gezilarien dorre estrategia eginik. Eta Ainamendi igaro zuan, gero grekar historigileek Pireneo deitu mendiak, urren Italia aurrekoak. Italia, zer jasoko begira, ez zuan abegi onik han aurkitu, baina Anibal alenak Apeninoen bizkarregitik zehar, Kannas bakartegian aurkitu zuan Erromako gudarostea eta bertan txikitu zuan.

Anartean Kartago larri eta Erromak ontziak prest Iberiara eta Kartagora bidean. Iberia ez zegoen gudurako egina, ez eta ere bere hizkuntza kultura latinari aurre egiteko prestu eta eskualde bakoitzak berera utzi zigun jasorikoen zoria edo azken mezua.

Kartago halako partidaz ler eginda erori zan Erromako legionen menpean, haren alderdikideek ere amorru beroa jasan zutelarik.


## VI ERROMA ALA KRISTO BAKEGILE?

### 6.1. Kristonak jasaten

Jesus Kristo kurutzerratu zuen erromatar gudarostea bera izan zan gero Jesus berbiztu horren berriona zabaldu zuen mezulari. “Gizakien lerro okerrekin Jainkoak zuzen idazten omen duela”, esan ohi da. Gizakiek iraultza bat egiten dute eta Jainkok beste bat, bakoitza bere elburura doa, bata indarkeriaz dihardu, bestea, gizabideaz, Espiritua lagun. Eta bizi gareno, hala gertatuko da, “bada Joanen garaitik Jainko Erreinuak oldarrean dihardu [...] eta zindoena da garaipena” (Mat 11,12)

Ondo gordeta egon da kristaudian Espirituaren indar hau, baina. haraz gero, jada hirugarren milagarrena dugularik, *aldi berrien seinaleak* dagoz denon begien aurrean eta medioetan.

<sup>4</sup> Anibal Barka izen-abizenaz. Ainibar soilago izan zeiteken, baina punikar jokerak, Baal alenari sor zioten berea, Bal>Valle alegia, gero Ibarreko>Barko bermatzeko, hizkuntza bi, bi kultura burrukan, euskaldunak, bereberak eta besteak.>



Arkeologiako Museu Ederrena Bagdag-en (2011) bonbakatua. Zaindariatari bat negarrez. Mesopotamiako 170.000 arte-lan, 80% ostu edo txikituak izan ziran, USAko gudariak zaintzaz “arduratu” zireneako. Arrapatu zuten hirurena berreskuratu zuten. Errudun? Islamiar terroristak. Sortaldeko Asiria, Babilonia, Acadia, eta Sumeria-ko, K. a 6.000 urtetako memoriarik argiena. Botere matxistak oster, ostea garbitzeko, iluna aukeratzen dute bidetzat. Lurpeko salapenik ez du nai ikusi begien aurrean.

### 6.2. Irak gaur lekuko

Arketipoak eta Arkeologia ariketa dugularik, on dugu Iraken geure egunetan (2003) gertatu zan gudua begiratzea, USAko Bux arduradun-errudun zelarik eta ingelesak eta prantxesak lagun.

Ohar guda gizonon gurari zantarraren elbideak nolakoak diren: gezurra eta propaganda merkea eta euren ondorea: erailtzak eta triskantzak. Andikien gezurrak mareatzen du gende arrunta, baina gudu gizonen eraso jasaten duen herriak, memoria eginik, izkutatu nai luketen egia bilatzen du eta haien gaiztakeria salatzen.

Museu zaina eta arkeologoen halako guden aldameneko bala galduez zaurituak baino ez dira (ikus or. 51), Hildakoez Jainkoa bakarrik arduratzen bai-da. Eta gure arketipoen Museua, Museurik ederrena, bonbakatua. Biziak ezeze, hildakoen arrastoak ere atzindu gurea hori! Bakoitza bere arketipo edo akertipoen mendeko.

Frantzisko Erromako aita santua ere Irak bisitatzera doa datoren udaberrian (2021) Irak bertako kristianoek eskatuta. Kristoren bakerako eta elkarteko anaitasun legea argitzeko izango al da.

> Ama Eskola alde batetik eta Aita Kuartela bestetik, indarkeria zaleak beti ere aMa+aiTa-ren bake aginduen Ekologia baztertu zutenetik.

### 6.3. *Berbiztuaren bakea*

Jesusen onezkoa bake ustelaren aurkako burruka da (Mt. 10, 34-11, 1), igarle berbak bere arma bakarra eta heriotzaraino bere oldarra. Hala ere, berbiztuaren egiak ez zuan utsik egin, “onezkoa zuekin” agur egiten bai-die bere jarrailei. (Jon. 20,19-31) Jesusek Espirituari bide eginik, berriona iragartera bidalten ditu bereak.

Jesusen burruka onezkoak egiteko, eta erromatar bakea zertan den, pictoaren abotik dakigu<sup>1</sup>; “triskantzari “*bakea*” deitzen die” azalpenak balio digu. Arteko euskaldunek *ongia opa* edo *onezkoa egin* esakerak dinoe. Akertipoen pasadaz, *bakea* gelditu zaigu, baina ez euskerak aker saltoa salatu gabe. Hona, bada, aNu amaren lehen arketipoa oN, onerakoa eta ez barne bizia duen Ba>baita bakante, arima gabe ustea, “ez larritu gorpau hiltzen dutenekaitik. larritu bai gorpau eta arima iburnira jaurti ditzakena” (Mat. 10, 28).

Kristo gurutzeratu et berbiztuaren izena aurkitu zuan herriak Erromari arpegia erakusteko biderik egiñena, martirien odola, kristinatu berrien azia eta marka egiten zutelarik. Izena *Pax* dirau bai, baina edukinez bestelakoa da haraz gero.

Martirien burruka ez da islamiarren “gudu santua,” Espirituari ardura osoa eta eskua ematea baiño. Kristianoek euren hilak lurperatzeko Katakunbak zulatu zituzten uritik ate, hantxe zuten batzar eta otoi leku egokia ere. Bai eta euren artea eta dotrinaren erakuslekua. Arte herrikoia eta arrunta utzi ziguten, hizkuntza bera lez, sinboloez baliatzen dena. Hilerrriak, etxeak bezala, toki sakratuak ziranez, igesbide egokia ziran jasarteetan. Horrela dakuskegu Iruñia Veleiako Paedagogiuma ere, edo urrago, andereño Zipitriaren etxea, Ikastola egiña, Frankoren garaian.



**Pax Xristi, Alfa et Omega**  
Katakunbetako orman.

<sup>1</sup> “Ubi solitudinem faciunt, pacem invocant” (Tacito, historigileagan)

<sup>2</sup> “Hilerrriko *bakea* ere deitu zaio eta RIP siglez dager kurutzeratua, hain zuzen, Iruñia Veleiako Kalbarioan ere (Ikus or. 57)



**Katakunbetako**  
tunelen gurutzeretan otoi lekuak egokitzen zituzten.  
**Otoitza** amak gidatzen du hilen eta bizien alde. Irudiak ba du Ama Eskola idearik edo *andere*>  
*Santera* jokararik.

### 64. *Enperioko erleginoa*

Herriak ez zuan sinisten Zesar jainko zitekenik eta Teodosio Enperadorearen garairako, K. o. 380-rako geiengoa kristianoek egiten zutelarik, *vateak* Kristo jainko eredu berriaren nortasuna galdetzen asi ziran eta Enperioaren Batasunerako eredia finkatzen, Aste-Osteak tirabira andia zutelako. “Beraz, *DiusPater* Seme hori. Jesukristo deritsona”, Aitaren pareko ala bardina zen eztabaidatzen zan. Teodosiok gotzainen batzarra deitu zuan, eztabaida Nikean Batzarrak erabagi eta adostu zezaten. Hortik Nikea-Konstantinoplar deitu Kredoa Dogma egin zuten.

Enperioko arazoa ez zan bihotzez kristautzea, ezpaere, kristaudia enperioko egiturara egokitzea. Asko erori ziran abaten sarean. Bestetariko eritziei erexia leporatuz, baztertuak izan ziren. “Arazoa ulertzeko sinistu” gomendatzen zan. Halatant Tertulianoaren maisuaren gardiz, *credo, quia absurdum* “sinisten dut, errebesa delako” aitortu behar izan zuan.

Ordetan kristaudiak Katakunbatako aldiak behingoz aztutze-ko, basilika ederrak izango zituan euren eleizkizunak egiteko eta euren liturgia ikusgarriaz gende sahiestua ere erakarteko.

Eskerrak Jesusek berak aurretiaz iragarrita zeukana, “ilunbetako gendea, argi seme-alabak baino zuhurragoak dira” (Lk. 16,8) eta gari arteko garakioaren alegia ere kontatuta zeukana. (M. 13:24-52)

Kristau eliza, Erromako Enperiotik iragana izan eta eskerrak artean *Jesusen Berriona* lau autorek berera idatzia zegona, ez ziguten ostu ezeuki eta apalei xumetasunean eskeintzen zaien Espiritua.

## VII IRUIÑA VELEIA, EGUNOTAKO FROGA.

7.1. *Lehena eta oraina*

Orain arte arketipoez eta Arkeologiaz esan duguna kontuan hartzekoak dira, baina frogatan Iruiña Veleiako akuilua ez bagendu, urrun eta ilun geldituko litzateken arazoa. Egungo politikoen ganora gaurko argiez ikusi gabe, ezingo genien aintzinakoei doilorkeria-edo holako laidorik egotzi. Eskerrak, beraz Arkeologiari, lurpean izkutatu zegoen Historia argitu digulako eta lehena orainaz gonbaratuz, memoria ornitzen laguntzen digulako.

Arkeologia lehenaren argibidea azterle zintzoarentzat eta badaezpadako kondaira zaharrak zientzia ohorez bermatzen ditu. Ba dagoz Historian gizabidezko ez ziren eta ez diren ekintza arbuiagarriak eta gaur arte iraun duten halako ezbidetate odoltzuak. Aintzinako gaizkilea aztertzeak gaurkoa ere argi errainu bereak arrapatzen du, eta aberatzak ez du nai bere aurretikoek nondik pilatu zituzten eukiak. Hain gaitik gorroto dute Arkeologia eta zegeretu astuen bilatzaile arkeologoa, lehena gaurkotzen dakialako.



Euskal arkeologoa eta euskera, egia egiztatzeko lekuko biak behar genitun

Antzinateko berrien Museurik ederrena bonbakatua ikusi gendun Bagdag-en (2011) Irakeko Gudan<sup>1</sup> Museua txikitzea bide batezko lan izkutua zan. Petrolio sundak eta gaz galgarriaren lainoak eta batez ere Sadan Husein satandua, arrazoi naiko ziran Samuel N. Kramer eta beste askoren arrazoiak kinkan jartzeko. Euren guzurrak oster, Sadan Husein epaituan eta urkatuan mundu guztiaren egiztatuak izan ziran. Babiloniako *Sorkuntza Poeman* lez, Jainkotxoeren errua garbitzeko, Tia.Ma.aT-en buruzagi zen Kingu zigortua izan behar bai-zuela eta lurpeko jakinduria beretik dakigu juzkatze hori ere *akertipoen* estrategia egina dena.



Erraz irakur daiteke *NEURE AMA ROMAN IL TA CISTIANA* eta ulertu bi mila urte dituen euskera, erromar kulturak umezurtz itxi duen seme edo alabak bustingi gaiñean idatzi eta marraztuz amari egiten dion oroigarria. Ama buruz bera, San Pedro bailitzan, kristiana izateagaitik K. g. III-ko martiria. Hanartean ez zan ezagutzen, ez ospatzen Agate Deunarena. Erromak *NEURE AMA* martiriaren kanonizazioa sor digu.

7.2. *Arkeologia eta euskera lekuko biak*

Arkeologiak bakarka ezin du ebatsi egia osoa. Lekuko mutuak abotsa behar du idea garbi azaltzeko. Marija Gimbutas-ek euskera bezalako arbasoen hizkunta nai zuan bere irudien asmoa osatzeko. Euskera, naiz zutik egon, orduan ez zan bere argien jabe, arik eta Unibertzitateko Exegesi Eskolan, ikasleak *Enuma Elish VI* Atalaren azkenak azaltzean “esto parece euskera” esan zuaiño.

Euskerak bere formak eta formalidadea dauka eta egin dezake auzian lekukoarena, “bi edo iru lekukoren artean egia guztia oinarritzen bai-dai”. (Mt. 18,16)

Arkeologia bakarka erraz baztertu daiteken froga hila da, baina arte lan zaharra garaikide den hizkuntzak bermatzen duenean, ostaz daiteke atzera bota, bada gorpuzkinak arima aurkitzea bezelaxe, bien berpiztea legez da, hitza agertzen denean.

Arkeologiak eta euskeraren hermeneutikak bat egin zuten Iruiña Veleiako indusketan, arkeologaria euskalduna zelako. Itzelezko txispa atera zuan. Zurtz gelditu ziran une batean, baina politikaren hariei ezker, naiko erraz gezurtatu zan aurkikuntza. Estatuak, Unibersitateak, Akademiak euren Aholkaria dute. Ez da konbeni? Beraz, gezurrezko aurkikuntza da. Arkeologoa auziratu egin behar da eta zigortu. Zigorak adieraz dezala egin okerraren neurria. Egia alde batetik doa, Estatua bestetik. Honek bere Rationa eta dirua banatzen du eta hartzailea erosita dago. Saldua, egia.

### 7.3. Arkeologari euskalduna

Arkeologari euskaldun batek bera bizi den inguruko lurrian edo kobaren baten arbasoen artelan edo mezu idatzirik aurkitu baleza, kontu argia eman beharko du, baina euskeran idatzia topatzen badu, akabo! Gezur konpondutzat emango dute eta Estatu Aholkariaren segerretua aizetara eman duelako, zentza zigorra jasoko du, erregearen isilekoa-edo salatu bailuen.

Hanarteko induzketa askotan agertu da euskera, Sumer, Egipto, Babilonia eta Iberian eta ez da inor konturatu edo ez nabariez aztoratu. Baina Karistioen alorrean bertan, latindar hizkiez ume eskuz idatzia eta gaur legezko euskera ulergarrian euskal arkeologariaren aurrean agertu direnean, ene! Ze aukera! Zertarako baiña? Arkeologo zintzoa ez bide zan konturatu euskera “erregearen” segeretua zenik. “Hau euskera da” -esan zuan bere kautan, hako neskak “esto parece euskera” Unibersidadean bezala, eta auzartu egin zan/ ziran eta urteetako burruka kaleratu zuan, Monkloako arazoa bailitzan eta ez Arabako Aldundiarena edo Unibersidadearena. Euskerak burruka hori bizi du eta askoren burrukaz bizi da eta biziko da.

“Dena dago lotua eta ondo lotua”, hako iragarkizuna baztertua ez deino, askori suertatu zaigu Iruña Veleiako Kalbarioa jasatea, ez baida alperrik Iruña Veleiako “euskal Kalbarioa” kristau Kalbario marraztuetan munduan lenena, naiz ume ezkuz eta alaba edo seme mindu baten adorez eta oroitzan egina eta hagaitik Erregearen edo Vatikanoko Museurako ezgeia autemana izan.

### 7.4. Ze berri dakarkigu Iruña Veleiak?

Berri onik naiko Kalbarioa bizi dutenentzat eta “azken juizioa” guzurretan salatu eta ankapetu zeukaten gaizkileentzat.

#### 7.4.1. Kristinau goiztarrak garena

Euskaldunok buru gogorrek giñala-ta, oso berandura arte ez genduela kristau erliginoa onartu esaten zuten. “Hable usted cristiano” eta holakoak entzun ditugu euskera egiteagaitik, Mairu-Bordako basatiak-edo baigiñan, eta horra “NEURE AMA ROMAN IL



Ezkerrean: Iruña Veleiako Kalbarioa keramikan, Eskuman: gurutzatuak Santa Sabina basilika ateko zurage koskatuan (Abentino mendian (Erroma))

TA CISTIANA” bustingi gorituan idatzia. Beraz euskera da dakigunez Iberian lehen Kristau Eskola, Kristonak jasan ditugulako Erromako Kaiserraren azken gudatean. Kasko berbera zeramatzen gudariek kurutzteratu zuten Kristo Jerusalemenean. Faszio bereko fatxen amorruek eraman zuan gure ama ere egunotan.

#### 7.4.2. Geure etxean arketipo zaharrak garena

Herriaren etsaia gure oinpeko belarra ebaiten dihardu oraindino, gure herriak oinarri sendorik ez bailuen, gure arketipoak, euskal endakoak barik, besterikoak bailira eta gure soloen izen asko argitu ezinak bailitzakuz, eta gu baskoin basatiak menderatuak izan baiginan, liburuetatik medioetara atera dutenez. Argia da euron leloa, naiz lelo alenarena den: “Hau Historia da, gainerakoak, mitoak”. Izan ere, zelan baztertu daitezke Historiako testo eginak, Iruña Veleiako frogak direla-ta, eta harago, nola usteldu Botere aldeko diren Dotore zaharren usteak ume kontuakaitik?

Ezjakina behingoan zakuratzten dute, ez berez burubakoa delako, Ama Eskola gabe, txarto eskolatua izan delako baino. Eta *Euskal Sena* antzeko asmoak gaur irakurtean, ezjakinak laban egin dezake.

Horra bada, euskaldunok bizi izan duguna da gure mitoa eta eurak gutaz idatzi dutena, **Historia**. Ez dira ez, mito zaleak, mitoa euskeraz mintzo delako, hatan ere. Mitoak egia garratzak dinozalako eta azpijokora prestatzen ez delako. Euskera bera ere mito galkortzat

dute eta gorroto, galkorra, egia barik, gezurra dela froga dezakelako.

#### 7.4.3. Euskera hizkuntza bizia dena

Hasierako euskaldunek tribuetan bizi ziran euren ordeka eta ibaraldetara eginak eta, elkarrengandik naiko banandu biziak, talde bakoi-tzak euren soinu bereziko euskera garatu zuten askatasun osoan<sup>1</sup>.

Azkue jaun hiztegiak euskalki guztietako hitzak jaso zituan, idazkeren autoritateari bere garrantzia emanaz, geroagoko Retana deritzaion zabalagoan ohi bezala. Ezkerrak Hiztegi hoiei, iberistek aurrera pausoak eman al izan dituzte iberikoaren ulerbi-dean. Adeitasun berdina merezi dute euskal forma guztiak.

Euskalerriko euskalkiez arduratzen ez denak bakarrik asma zezaken Iru Probintziak berandu euskaldundu izan zirenekoa<sup>1</sup>, adibidez, hotz, tokian tokiko hizkeraz nabari direnak, napar bazkoi-en sarradan euskaldunduak izana edo, Arkeologiak ere hemen aurkitun ez duen, keltar arketipoen jatorri arrastokoak bailira.

### 7.5. Euskera eta Arkeologia

Arkeologiak Historia zakondu eta argitu du eta bere bidea egin ten du egiaren alde. Bere lekukide den euskerak ere bere partea egiteko gert dago, hatarako eskubidea dauka eta Historia egin behar du, egiak bere ertzak dauskalako “egia biribilen” aurrean.

Tokian tokiko euskera “*euskera bizia*” aipatzean izorratu egi-ten ditu Bat zale asko eta orduan, lanean oneski jardun izan duen euskal arkeologia, hako zirenearra lez, Jesusen gurutza eroate-ara behartzen. (Mk 15, 21- 22)

Arkeologiak euskera bizia bizirik aurkitzen du Karistia aldean, orain bi mila urteko euskera. Arkeologia arketipoen alde dago, bataren eta bestearengandik aldentzea euskerari sen bizia ebatsi eta uneko ideologia igeskorren pentsudan ustea da.

<sup>1</sup> Une honetan euskera batuak euskalki denak garbitu izan balitu, trola zaleei agoa izteko arrazoia faltako litzakigu: euskalkien arrazoia, alegia. Iztegiak hitz batzuk baztergarri eman ditzake aukeratu artean. Mitxelenak ez zuan baztertuko hako “katebegi hori”, berak eduki lezakelako beste askoren jatorri bidearen azalpe-na. (*Sobre el pasado de la lengua vasca*, o.c. or. 196)



Sumer: Inanna eta Dumuzi, Nin. Ursag eta Enki Baradizuko mitoan. Kuadro bi-tan bakezko gizartea dago: gazte biren ereduak lenengo eta herriko ardu-radun eldu biren urreng. Ereduok ez dute Bibliako ereduarekin zerikusirik Han burruka eskema gertatzen da, sugeari behingoa eskua emateko aitzakia.

Euskera bestalde, Bastergo Teologiaren une eta orduen leku-ko da eta bere arketipoetan gordetzen ditu halako labankadak merezi izena: *bat>batutu>patxutxo*, ama hizkuntzan, gauza bizia *ama-aita> maite* bikotearen aurkatasunean egiztatzen bai-da.

Susmotan du zeren tirriak bultxatu zituan Menfis-en Tenploko abateak *Bata>Ptah* harrizkoa *ta tenen* aldarrikatzen. Hori jakinago eta gorrotoago izango dute zigur euskera Tenploko eta Pre-torioko morroiak: *Bate/ abaten* gudu zalekeria eta alderantzizkoa.

Isilian gordeko ete dugu euskara bere segetuekin, bizirik zuntzitu ez dezaten? Arerio gaiztoon asmoak eta nortasuna salatu hobe eta jakinian egon, esanda dagoenez: “ugazabak baleki zein ordutan datozken lapurrak, erne egongo litzateke eta ez lieke etxea zulatzen utzi-ko”. (Lc 12,39-48)

Arkeologia eta euskera, lekuko biok esku eukiteak geure usteki-da bermatzen du.



Emaiz ona, zugaitz ona. emaitz txar, zugaitz txar. Emakumearen Sorkuntzak berez Ama Eskola antolatzen du,

## VIII ARKEMITOA VS ANTIMITOA

## 8.1. Aurkespenez

